

# Arrasate

P R E S S

1999ko  
Apirilak 23  
448. zenb.



## “Hegohaxe” Seaskaren haizea

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • GURE ENPRESAK: BASTIDA AKADEMIA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: X. MENDIGUREN • KULTURA: TRIBUAREN HITZ GALDUAK



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ..... ☎ 943 77 13 34

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Olarte, 43 behea ..... ☎ 943 79 81 11 / 943 79 81 01

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22 - 1 ..... ☎ 943 79 72 16

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- Lorenzo Martin, Rafael Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... ☎ 943 79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NÚÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

## TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22



# Hirugarren Mundu Gerra?

**N**ostradamusek horrela iragarri zuen XVI mendean, alegia, XX. mendearen bukaerak hirugarren mundu gerra ezagutuko zuela. Bere iragarpen guztiak ez dira bete, baina bai asko; horien artean bigarren mundu gerrarena. Izan ere, mundua gerra txikiz josita dagoen bitartean, herri boteretsuenen interesek bakarrik piz dezakete mundu gerra, bistan denez. Eta, aurrekoetan bezala, European, jakina. New Yorken ez da inoiz bonbarik erortzen.

Kosovotarrei eragindako genozidioen berri jakitean, denok genioen: non dago nazioarteko komunitatea? Ezin da ezer egin? Batzuek lasaitu ederra hartu zuten NATOk lehen eraso egin zuenean: bazen garaia. Baina horrek konponduko du Kosovoko gatazka? Izan ere, okerragotu



Karmele Perez

**“Zergatik ez da onargarria Serbiaren nazionalismoa eta bai Espainiarena?”**

egin du, ez dut zalantzarik.

Jamie Shea, NATOk bozeramaile zibilak zera esan zuen: “Milosevic prezio garestia ordaintzen ari da”. Egia ote? Zein ari da prezio garestia ordaintzen alde bietako prepotentziaren? Ez dira etxerik gabe, familiarik gabe, janaririk gabe, lanik gabe, eskubiderik gabe, bizitzarik gabe gelditzen ari diren kosovotarrak —batez ere— eta serbiarrak? Ez gara gu geu, inpotentzia eta atsekabez ikaratuta gauden guztiak?

Apirilaren 15eko bonbardaketari buruz, zera esan zuen lehen aipatutako bozeramaile berak: “gaurik onenetakoa izan zen” eta “erasoak arrakasta bikaina izan zuen”. Noiztik “ona” eta “arrakasta” bonbak, misilak, txikizioa, suntsiketa, beldurra, heriotza... Aznarren hitzetan, “nazioarteko komunitateak erantzun egin behar du Milosevicen

gobernuak behin eta berriz oinarritzko giza eskubideen aurka egindako guztiaren aurrean”. Zelako interesen arabera dira garrantzitsuak kosovotarren eskubideak eta ez kurduenak? Zergatik ez da onargarria Serbiaren nazionalismoa eta bai Espainiarena? Zergatik gastatu hainbeste diru heriotza eragiteko, bizitzeko behar duenari kenduta? Interes politiko, ekonomiko eta estrategiko gehiegi, egiten ari diren jokoak garbia izateko.

Norbaitek pentsa dezake gehiegitan aipatzen ditudala mundua, giza eskubideak, gerra, kolonialismoa edo boterearen ustelkeria. Zoritxarrez, eguneroko errealitate bortitz ditugu horiek guztiak eta ezin entzungor egin. Haatik, badut beste askok ez duten aukera: nire inguruari behintzat oihu egin diezaioket, nire haserrea eta salaketa zabal ditzaket. Poztuko nintzateke iritzi horiek beste pertsona askoren sentimenduak hedatzeko balioko balute, beste horien ideiekin bat egingo balute.

Hartara, hitz xume hauek askoren ahotsa direla pentsatzeak, hitzei balio berezia ematen baitie. ■

*“Amak proposatu zidan txerri bat haztea, irabaziak erdi bana egiteko. Hortxe piztu zitzaidan enpresario sena”*

Juan Arregi

**%61**

**Euskalduntasun indizea Arrasaten**

Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duen euskalduntasun indizeak dio Arrasateko populazioaren %61 euskalduna dela. Indize hori lortzeko batu egiten ditu euskaldunak (%54) eta ia euskaldunen (%14) erdia. Hamar arrasatearretik, bada, sei euskaldunak dira.

ITURRI ONETIK

## Hezibidetik Danimarkara

Almen, San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastole-tako 10 irakasle Danimarkara joango dira larunbatean, hilak 24, astebeteko egonaldia egitera. Bidaia Hezibide elkarteak antolatuta du, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetze aldera.

Danimarkan hiru ikastetxe bisitatuko dituzte eta atzerriko hizkuntzak irakasteko zer metodologia erabiltzen duten aztertuko dute. Ondorioek eragina izan beharko lukete gure ikastoletan erabiltzen den metodologia hobetzeko.

Leintz Bailarako ikastolak aitzindariak izan dira atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan. Lau urteko neska-mutikoak ingelesa ikasten hasten dira. DBHn, berriz, 12 bat urterekin, alemana edo frantsesa ikas dezakete.



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendariak:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Nerea Zallo Arantzazu Lagunilla, Arantzu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioak:** Agurtzane Gainera. (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubue. **Asteburuetako berriemakaldea:** Gontzal Landa. **Bekadunak:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Izar, Udako Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velaz de Mendizabal. **Banaketak arduradunak:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISBN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimetegia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Ubane Madera eta Maddi Trubue.



Arrasateko Udalerriko Laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila



## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 23  
 • Gaeuz eta egunez: Morales, S. Andres
- Larunbata, 24  
 • Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerias
- Igandea, 25  
 • Gaeuz eta egunez: Español, Iturriotz
- Astelehena, 26  
 • Gaeuz eta egunez: Korkuera, Musakola
- Astearte, 27  
 • Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin
- Asteazkena, 28  
 • Gaeuz eta egunez: Amezua, S. Marina
- Osteguna, 29  
 • Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
 Igoalatorioa ..... 943 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
 Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
 Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 943 03 53 00  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
 • Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
 • Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11  
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 77 91 06  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 78 44  
 ..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**  
 Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## ARRASATEKO HERRIARI

**E**zer baino lehen, nire kale-  
 ratzearen aurrean niri  
 modu batera edo bestera  
 elkartasuna erakutsi dizkida-  
 ten pertsona guztiei eskerrak  
 eman nahi nizkieke.

Gelma enpresak norbera-  
 ren eskubideen eta lagunen  
 eskubideen alde borrokatu  
 duen edonorenganako beti-  
 danik izan du jarrera ezkorra.  
 28 urte daramatzat enpresa  
 horretan lanean, eta sarri amo-  
 rruz eta bestetan inpotentziaz  
 injustizia askoren lekuko izan  
 naiz, patronalaren helburua  
 beti izan baita ekonomikoki  
 aurrera egitea, langileen lan eta  
 osasun egoeraz arduratu gabe.

Bidegabekeria horietako  
 bat nire kaleratzea izan da.  
 Horren aurrean ez dut besoak  
 gurutzatuta gelditu nahi izan,  
 eta berriz enpresan onartua izate-  
 teko ahal izan dudana guztia  
 egin dut: kale agerraldiak egu-  
 nero, Garibain 15 eguneko  
 kanpaldia... eta enpresaren  
 jarreraren aurrean bi astean  
 gose greba egin beste auke-  
 rarik ez nuen ikusi.

Esan nahi dut nire erre-  
 sistentziaren joera kaleratze-  
 aren aurrean ez dela zerbait  
 pertsonalaren defentsa. Askoz  
 harantzago doa. Gaur egun lan  
 arloko legeek ez dira inola ere  
 langilearen onurarako, guztiz  
 kontrakoa baizik. Horregatik,  
 sistema kapitalista honen aur-  
 ka borrokatzea sekula baino  
 garrantzitsuagoa da, gure gaitz  
 askoren (bai gizarte eta bai lan  
 arlokoen) sorburu baita. Izan  
 ere, enpresa gizonak aberas-  
 ten ari badira ere, pobrezia eta  
 gizarte etsipena gero eta han-

diagoa baita. Horregatik, fun-  
 tsezkoa iruditzen zait lan zen-  
 troetan maiz izaten diren  
 gehiegikeriei aurre egitea.

Gaur egun ez da erraza  
 gaztea izatea (beharbada inoiz  
 ez da izango); gazteriak pre-  
 sio asko jasaten ditu: izuga-  
 rrizko lehia bai ikasketa eta  
 baita lantokietan ere; kontsu-  
 mismoaren deia, moda, nor-  
 banakeria bultzatzen duen  
 balore sistema...

Horregatik, mutirikeria,  
 elkartasuna, pertsonen arteko  
 berdintasuna... bultzatzeari  
 garrantzitsua deritzot. Gaur  
 horrelako gizarte batetik oso  
 urruti gaude; Balkanetako  
 gerrari begiratu besterik ez  
 dugu.

Honen guztiaren aurrean,  
 nire kaleratzearen kontrako  
 borroka guztiak aldatzearen  
 beharraz jabetzeko exenplu  
 txikitat balio izan dezan nahi  
 nuke; posible baita guztiak  
 aldatzea. Gazteek, batez ere,  
 horrela pentsa dezatela gus-  
 tatuko litzaidake.

*Pedro Mertxan*

## UDALETXEAN EUSKARAZ

**G**aian ditugun hautes-  
 kundeetan parte hartu-  
 ko duten alderdi politi-  
 koei zuzenduta doa gutun hau.

Gaurko honetan, udal hau-  
 teskundeak direla eta, haus-  
 narketa labur batez gatoz.

Arrasateko Udalak eus-  
 karaz lan egiteko erabakia  
 hartu zuen duela urte batzuk,  
 euskararen erabilera norma-  
 lizatzeke plana abian jarritz eta  
 epeak jarritz udal langileak  
 euskalduntzeko. Ondoren

hitzarmena sortu zen. Han  
 udalak herriko talde, enpresa  
 eta merkatariekin euskaraz  
 aritzeko ardura hartu zuen eta  
 urtero-urtero berresten du  
 ardura hori.

Nola liteke hau bultzatzen  
 duten udal agintariak egune-  
 ro erdaraz jardutea?

Badira kezkatzen gaituz-  
 ten puntu batzuk:

- Azken urteotan udale-  
 txean atzerapausoak ematen  
 ari dira euskarari dagokionez;  
 lehen hainbat batzorde eus-  
 karaz egiten ziren eta orain ez,  
 ez da hitzarmena betetzen eta  
 beste administrazio publiko-  
 ekiko harreman asko erdaraz  
 izaten dira, nahiz eta hauek  
 euskaldunak izan.

- Ez dago herritar euskal-  
 dunok erakunde publikoetan  
 (bake epaitegian, lantegi esko-  
 lan, anbulatorioan...) ditugun  
 harremanak euskaraz izatea  
 bermatuko duen plangintzarik.

Hau guztia kontuan har-  
 tuz, horrela jardutea euskal-  
 dunon eskubideak zapaltzea  
 dela deritzogu. Herri honek  
 udal euskalduna nahi du eta  
 behar du. Garbi dugu hau guz-  
 tiau zuen ardura dela.

Udal hauteskundeetarako  
 zerrendak osatzeko garaia  
 denez, zera eskatzen dizuegu:  
 zuen programetan gure kez-  
 kak kontuan hartzea eta zine-  
 gotzi euskaldunak aurkeztea,  
 euskaldunon eskubideak ber-  
 ma daitezen eta benetako udal  
 euskalduna izan dezagun.

*Herritar euskaldunon  
 ordezkariak euskaldunak izan  
 behar dute.*

*Euskal Herrian  
 Euskaraz*

*Sili Sili*

Martxa eta estilo  
 handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
 jatetxea

Garagartza auzoa  
 Tel.: 943 79 76 58  
 ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



# Zuk egiten duzu errentaren gaineko adierazpena ala beste inork?

*Euskaldun gehienek esaten dute errentaren gaineko adierazpena zailegia dela betetzeko*



**Valentin Martinez**  
(68 urte)  
**Erretiratua**

Bergaran egiten didate, nik ez dakit egiten eta.



**Eugeni Aiestaran**  
(74 urte)  
**Erretiratua**

Nik ez dut egiten, alarguna naizelako.



**Maria Luisa Diez**  
(37 urte)  
**Etxekoandrea**

Gestoria batean egiten didate, erosoagoa delako. Zaillegia da bestela.



**Diego Nogales**  
(36 urte)  
**Ikaslea**

Orain zazpi urte erabaki nuen lanik ez egitea eta, nola ez dudan diru sarrerarik, bada ez dut adierazpenik egiten.



**Mercedes Pino**  
(45 urte)  
**Etxekoandrea**

Kutxan edo sindikatuan egiten digute, nik ez dut ulertzen eta.



**Angel Agreda**  
(67 urte)  
**Erretiratua**

Sindikatuak egiten dit. Nik ez dakit egiten.



**Maria Clara Martinez**  
(47 urte)  
**Langilea**

Nik ez dut ulertzen, astirik ere ez dut eta horregatik bankuan egiten didate.



**Francisco Azkoaga**  
(80 urte)  
**Erretiratua**

Lehen neuk egiten nuen. Orain semeak egiten dit, bera horretan dabil eta.

## LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermarekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

### Itaca Zentru Mediku eta Estetikoak

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.  
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS 492/98

## Totem

- Zapatak
- Tatuajeak
- Arropak
- Body piercinga

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88  
Zarugalde, 14 • ARRASATE





# Arrasate

## LANAK


**JOSE LUIS IÑARRAN**  
Errepidea konpontzeko lanak.

**URIBARRIN**  
Aparkaleku lanak eliza ondoan.

**AMAT-EDERLANEN**  
Urbanizazio lanak.

**FERRERIASEN**  
24 eta 26 zenbaitan etxe-ak konpontzeko lanak.

**MUSAKOLAN**  
Zirkulazio argiak jartzen ari dira.



## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 23**

Lainoak izango ditugu lagun egun osoan. Arratsalde partean euria egingo du. Haizeak hego-ekialdetik joko du.



**LARUNBATA 24**

Lainoak eta ostarrateak tartekatuko dira. Haizeak hegomendebaldetik joko du eta tenperatura aldakorra izango da.



**IGANDEA 25**

Goi eta erdi lainoak tartekatuko dira eta euri tantaren bat ere jausi daiteke. Tenperaturak gora egingo du.

## Ilargia



**Ilbetea**

Ilbetea izango dugu apirilaren azken egunean.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Ostiralean**  
18:30 (Otoitz ordua)

**Larunbatean**  
18:30 (Bezpera abestiak)  
19:00 (elebiduna)

**Igandean**  
10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)


### Santa Teresa

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean**  
10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%96,2**



## Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Postako langileek greba egin zuten.
- Deba bailarako mendizale elkarteak, Euskal Federakundeak, EKIk eta Eguzkik Elgeako parke eolikoa salatu zuten udaletxean, prentsaurrean.
- Mikel Otxoari omenaldia egin zioten Bonba Taldiek eta Errealeko jokalariek.




ImaGen  
FOTO

IMAGEN  
fOTO  
IMAGEN  
FOTO  
IMAGEN  
FOTO  
IMAGEN

14 urtean aritu gara argazkigintzan.

Orain, berriztu egin dugu FOTO IMAGEN, zuri zerbitzu hobe eskaintzeko

Zatoz denda berria ikustera!!



**%20ko beherapena errebelatuetan, apirilean**

- Ezkontza eta jaunartzetarako erreportajeak
- Kalitatezko errebelatuak

Zerkaosteta 5. • ARRASATE • Tel.: 943 79 66 87



# 23 ostirala

■ ZINEA

*Leyenda Urbana*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ POESIA ETA MUSIKA

*Mikel Markezek eta Pako Aristik* "Tribuaren hitz galduak" saioa eskainiko dute Monterronen, arratsaldeko 19:00etan, liburuaren nazioarteko eguna ospatzeko.

■ GAZTETXEEN MAHAI INGURUA

Gaztetearen VIII urteurrena dela eta, inguruko gazteteen arteko mahai ingurua antolatu da Gazteteen, 19:00etan. 22:30ean, berriz, *Hissopus* eta *Zea Mays* taldeek kontzertua eskainiko dute.

■ MUSIALDIA JAM ARETOAN

*Voodoo Glow Skulls*, skunk eta *Don Cikuta* arituko dira Bergarako Jam aretoan, gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrera 1.500 aurrez; bestela, 1.800 pta.

# 24 larunbata

■ ZINEA

*Leyenda Urbana*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ ALTAMIRAKO JAIK

- 10:30ean, suziri jaurtike-ta eta dultzaineroak.
- 11:30ean, haur jolasak
- 13:00etan, auzo taberna-ren irekiera
- 16:30ean, suziri jaurtike-ta eta marrazki lehiaketa
- 18:00etan, txokolatada
- 18:30ean, omenaldia erre-tiratuei eta Lore Gazteak tal-dearen saioa

• 19:00etan, meza San Fran-tziskon

• 19:15ean, buruhandiak

• 22:00etan, dantzaldia-*Txinparta* taldearekin

■ OTXANDIAR ETA OLETARREN ELKARTZEA

Deba Garaiko otxandiar eta oletarren elkartzea egin-go dute Aretxabaletako Lari-ño auzoko San Kristobal elkar-tean. 12:45ean ongietorria, 13:00etan meza, 14:00etan bazkaria eta, amaitzeko, Agur Santa Mariña abestuko dute guztiak.

■ HERRI BAZKARIA

Gaztetearen VIII urteu-rrena ospatzeko, herri baz-karia egingo da 15:00etan. Ondoren, eta giroa berotze-ko, kalejira egingo da. 22:00etan, *Anger*, *Epilepsia* eta *Txatunga Benbe* taldeen emanaldia.

■ KALE AGERRALDIA

"Euskal Herrian bizitze-ko eskubidearen alde" kale agerraldirako (Donostian) autobusa, 15:15etan aterako da, Garibai kaletik.

■ MUSIKALDIA JAM ARETOAN

*Animal*, *Ost*, eta *Vertigo Surrond* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan, gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrera, aurrez 1.200 pta kostako da. Bertan, berriz, 1.500.

# 25 igandea

■ ZINEA

*Celebrity*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek irteera antolatu du Belate-Saioa-Irurita joa-tek. Autobusa goizeko 07:00etan aterako da, Garibai kaletik.

■ MENDIA ETA ANTZERKIA

09:30etan mendi ibilal-dia egingo dute Gazteteke-ek, autopistaren ibilbidean 18:30etan, La Tirili antzerki taldearen saioa, Gazteteen.

■ KULTUR ERROTA

*Tapiak* eta *Leturiak* erro-meria eskainiko dute, Ipa-rraldeko dantzari batekin bate-ra. Honek dantza maixu egin-go du, 20:00etan, Amaia Antzokiko hallean.

# 26 astelehena

■ ZINEA

*Celebrity*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ ERAKUSKETA

Gazteteen AHTren eta autopistaren inguruko erakus-keta irekiko da. Biak ere aste osoan egingo dira ikusgai

■ KONTSUMOA ETA INGURUGIROA

Toki Argi erretiratuen elkarteak kontsumoaren ingu-ruko astea antolatu du. Lehe-nengo saioak "Kontsumoa eta ingurugiroa" izango du azter-gai. Javier Llantadak hitzal-dia emango du 17:00etan.

# 27 asteartea

■ ZINEA

*Celebrity*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ BORONDATEZKO LANA

Nagusilan eta RSVP elkar-teek hitzaldi sorta bat eratu dute borondatezko lana eta gizartearen parte hartzearen inguruan. 16:00etan eta 18:30ean, Arrasateko udale-txean.

■ INGURUGIROA BABESTU

Toki Argiren bigarren hitzaldia ingurugiroa izango du gai nagusi. Saioa arratsal-deko 17:00etan izango da, elkartean bertan.

■ LIBURU AURKEZPENA

*Komando Autonomoen* liburuaren aurkezpena egin-go da Gazteteen, arratsalde-ko 19:30ean.



# 28

asteazkena

# 29

osteguna

## ■ ELIKADURA MINTZAGAI

Jon Ariñok elikadura aztertuko du Toki Argi elkartearekin, arratsaldeko 17:00etan.

## ■ BIDEO EMANALDIA

*La estrategia del caracol* filma eskainiko da gaztetxean, gaueko 21:30ean.

## ■ ZINEA

*Estacion Central de Brasil*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

## ■ BORONDATEZKO LANA

Nagusilan eta RSVP elkarteek hitzaldi sorta bat eratu dute borondatezko lana eta gizartearen parte hartzearen inguruan. 16:00etan eta 18:30ean, Arrasateko udalarekin.

## ■ ELIKADURA HIZPIDE

Toki Argi elkarteak "Elikadura osasun bide bezala" hitzaldia antolatu du. 17:00etan, elkartearen bertan.

## ■ BIDEO EMANALDIA

*Vivir no es un lujo* filma eskainiko dute Gaztetxean, 19:00etan.

## ■ ANOREXIA AZTERGAI

Arrasate Institutuak anorexiari buruzko hitzaldia antolatu du gurasoentzat. Euskarazko saioa Mertxe San Nikolasek eskainiko du; gaztelaniaz, berriz, Junkal Martinez de Rituertok. Saioak arratsaldeko 18:30ean izango dira, Institutuko goiko eraikuntzan.

## ■ IRTEERA AZPEITIRA

Azpeitiko Lapatz zaborregia ezagutzeko irteera antolatu du Toki Argi elkarteak, kontsumoaren gaineko aste-ari amaiera emateko. 15:00etan abiatuko dira Toki Argiko erretiratuak, elkarte-etik bertatik.

## ■ LIBURU AZOKA

Larunbatean itxiko du udal liburutegiak astelehene-etik irekita duen liburu hon- datuen azoka. Monterronen izango duzue, beraz, liburuak modu erraz eta merkean esku- ratzeko aukera.

## ■ SAN ANDRES JAIETAN

*Peste eta Eskizofrenia Rock* taldeek kontzertua eskainiko dute Maiatzaren Lehena plazan, 22:30ean, San Andresko Gazte Txokoa- antolatuta.

## ■ BIDAIA LOURDESERA

Gaixoen pastoralak bidaia antolatu du Lourdesera, Hal- con Bidaiekin batera. Inte- resatuek San Joan parroki- an eman dezakete izena, 2.000 pta ordainduta. Irteera maia- tzaren 15ean izango da.

## ■ ANTZERKI SAIOA

Sobradun antzerki talde- ak "No hay huevos" antze- lana eskainiko du Monterro- nen, gaueko 22:30ean. Sarre- ra 1.000 pta kostako da. Gaz- te txartelarekin, berriz, 800 pta.

## ■ YOGA IKASTAROA

Arrasateko Yoga elkar- teak hastapen ikastaroa anto- latu du. Saioak maiatzaren 3an hasiko dira eta ekaina- ren 9a arte iraungo dute. Inte- resatuek 943 79 35 76 edo 943 79 66 98ra dei dezake- te, 21:00etatik aurrera. Saio- ak astelehene-etik asteazke- ranera bitartean izango dira, 09:45etan, 15:00etan edo 20:30ean.

## ■ REIKI IKASTAROA

Lehen mailako reiki ikas- taroa antolatu du Arrasate- ko Yoga elkarteak maiatza- ren 1erako eta 2rako. Matri- kula 15.000 pta kostako da. Irakaslea Remedio Serena izango da. Interesatuek dei- tu 943 79 35 76ra.



## Haurren danborrada

SUDC elkarteak dagoeneko zabaldu du izenak emateko epea San Juanetako haurren danborradan parte hartzeko. Horretarako apirilaren 26tik 30era bitartean egongo da aukera, arratsaldeko 17:30ean, elkarteak Pablo Urganan duen egoitzan.

XXI Mus txapelketa ere hasi da. Final erdia apirilaren 23an jokatuko dute Txalaparta-Alkartuk eta Udalpe-Irantsubek. Apirilaren 30ean, Alkartu-Txalaparta eta Irantsube-Udalperen arte-koak jokatuko dira.

## Aretxagazeta

Amatasun baja betetzeko egun osoko langilea behar da.

### Baloratuko da:

Euskara maila, informatika erabiltze mailan ezagutzea, Aretxabaleta eta bertako hizkuntza ezagutzea.

Curriculumak maiatzaren 5a baino lehen Aretxagazetara ekarri (Durana 11 - 2. solairua) edo 151 postakutxatilara bidali.



USTEAK USTE

Zinegotzi elebidunak

**A**lderdi politikoak buru-belarri ari dira udal hauteskundeetarako zerrendak osatzen. Kontuan hartu beharko lukete aspaldiko urte hauetan behin eta berriro egin den eskari bat: zinegotziak elebidunak izan daitezela; gaztelaniaz dakiten bezala, euskaraz ere jakin dezatela.

Alderdi politikoek kontuan hartu beharko dute Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duen euskalduntasun indizearen arabera, hamar arrasatearretik sei euskaldunak direla eta horietako askok euskaraz nahi dutela bizi: etxean, lanean edo udaletxean.

Azken urteotan arrasatearrek euskarari erakutsi dioten atxikimendua ere gogoan hartzekoa da: haurren eta gazteen euskararen ezaguera bikoiztu egin da eta, ondorioz, kale erabilera ere bi halakotu egin da. Horrek garbi adierazten du asko direla euskaraz bizi nahi dutenak.

Zinegotzi ona izateko ezinbestekoa da gaur egungo Arrasaten elebiduna izatea. Ez nahikoa, baina bai behar-beharrezkoa.

Joxe Aranzabal



Euskaldun euskaltzaleak

\* Xabier Mendiguren

**T**arteka gure artean sortzen den eztabaida da. Euskararen alorrean gero eta pauso handiagoak ematen ari gara, baina ez dago "dena" eta "bat-batean" eskatzerik normaltze bidean dagoen gurea bezalako herri batean. Ia ezer ez izatetik zerbait izatera iritsi garelako, eta batez ere etorkizunean askoz gehiago izango omen garelako.

Hizkuntza komunitate bat osatzen dugun heinean, horretatik irrendakoez bere kontrola hartzen hasteko ordua da, itxurakeria eta amaigabeko atzerapenaren menpean erori nahi ez badugu. Eta horrek esan nahi du euskara eta euskal kultura barrutik bizi dituztenak behar ditugula euskararekin zerikusi zuzena duten erabakigunetan.

Horrek ez du esan nahi "euskaldun osotasun" horren jabe ez direnak baliagarri, fidagarri eta beharrezko ez direnik.

Postu politiko erabakigarrietan (Lehendakaritza, alkatetza nagusiak, EITB, Jaurlaritzako kar-

gu, gotzaindegi eta abarretan) euskaldun oso eta euskaltzalerik ez izateak gure hizkuntza komunitatearen muga murriztu eta murriztaileak agerian jarri ez ezik, birsortzeko ahalmena dute. Garrantziko postuetan benetan euskara dakienik ez badago, zer balio eta zentzu du euskarak?

Zentzu horretan zegoen idatzia joan den abenduaren 21ean 10 alderdik sinatu zuten konpromiso politikoaren testua: dirulaguntzak gehitzea eskatzen zen euskararen oinagiturak sendotu eta hedatzeko, baina hautagaien euskalduntasuna eta maila desberdinetako aginte-politiken sailartekotasuna ere eskatzen zen. Euskal Herri euskalduna eraiki nahi badugu, ezin-

“ Garrantziko postuetan benetan euskara dakienik ez badago, zer balio du euskarak? ”

bestekoa zaio maila eta sail guztietan garapen eutsi eta eutsigarria izatea, gune publiko osoaz jabetzea. Ustezko kudeaketa eraginkorraren izenean euskal komunitatearen arazoak kanpotik sentitu eta biziko dituenaren eskuetan jartzea politika kontraesan-korra litzateke gure nazioa eraikitzeari lehentasuna eman nahi zaion une honetan. Ez genuke inoiz ahaztu beharko gure hizkuntza eta kultura mende luzetan baztertu eta aintzakotzat ez hartzeak nolako ondorio desegituratzaileak izan dituen gure Herri honetan, eta jadanik hainbeste kostata bake-bideratze unean gauden honetan, uste dut beste maila bateko kalkulatu eta interesak bigarren mailakoak direla.

Euskaldun ez ezik euskaltzale diren, hots, gure hizkuntza komunitatearekiko beren atxikimendua frogatua duten pertsonak erabakigunetan ezartzeak lehentasuna izan beharko luke, zeren beti errazago izango baitugu kudeatzaile eta teknikari onak horien gidaritzapean lanean jartzeko aukera, alderantzizkoa baino. Euskara eta euskal kultura zinez ezagutu eta estimatzen ez dituenak nekez izan baitezake horien etorkizuna eraikitzeke ezinbestekoak diren sen eta ausardiarako gaitasuna, "indiar erreserba" keraitzeko tentazio guztiak gaingidituz.

\* Euskararen Kontseiluko lehendakaria



**Zuri Garbiketak**

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORLATZA



**TOKION**

**ELEKTRONIKA**  
**ARTIKULUEN SALMENTA**


Erdiko Kale, 7  
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE



**OÑATI**

**1 Erretiratuak lanean**

Datorren asteartean pertsona nagusien eskaerak aldarrikatuko dira Kultura Etxean. Izan ere, "Donostialdea" izeneko erretiratu eta aurrejubilatuen elkarteak hitzaldia emango du egun horretan arratsaldeko 17:00etan. Orohar, erretiratuiei dagokien diru kopurua handitzea eskatzen dute. Lau eskaera nagusi aldarrikatuko dituzte horretarako hitzaldian. Batetik, 40 urtean kotizatzen egon eta borondatez erretiratu ez direnen pentsioa egunera dadila eskatzen dute. Bestetik, Gizarte Asegurantzarekin hitzartutako zenbaki kopuruak ez handitzea da lortu nahi duten beste aldarrikapen bat. Eta hirugarrenik eta laugarrenik, alarguntzat eta borondatez erretiratu ez diren jubilatuen diru kopuruak handitzea.



musikal honek eta Cameron Mackintosh Limited-ek baimendu du saiorako musikaren partitura.

Bergarako Musika Eskolak bitartekari lanak egin ditu soinuaz arduratuko den talde instrumentala osatzeko.

**ARETXABALETA**

**3 Antzokia egitekotan**

Aretxabaletan antzokia egin nahi da orain zinema eta kultura etxea dagoen lekuan. Udalak lehiaketa bat antolatu du jendearen ideiak biltzeko. Leku horrek antzezlanak eta bestelako emanaldiak eskaintzeko agertoki egokia izateaz gain, bestelako gelak edukitzea ere proposatu da, tartean bideo-hitzaldietarako egokitutako bat. Honela bada, zinemaren bideo emanaldiak ez dira alde batera utziko egitasmo berri hau garatzerakoan. Zinema mantentzea baita helburuetako bat.

Dena den, aipatu beharra dago, orain arte zinema erabili denean ikusle gutxi izan dituela eta horren ondorioz itxi behar izan dutela. Beraz, jarduera berrietarako jende gehiago beharko da.

**BERGARA**

**2 Oliver Twist Bergaran**

Bergarako Orfeoiak 75 urte betetzen dituela eta, ospakizun ekitaldien artean *Oliver!*

musikala taularatuko da maiztaren 8,9,15 eta 16an Mariaren Lagundia ikastolako aretoan. Charles Dickensen *Oliver Twist* eleberria oinarritzat izanik, gaztelaniazko bertzio bakarra dago munduan eta Orfeoiko arduradunak

bertsio hau egin duen talde bakarrarekin egon dira lan hau Bergaran taularatu ahal izateko. Ondoren, Miguel Moñuxek, Pello Txintxurretak eta Margareta Allgrem-ek euskarara moldatu dute antzezlanak. Guztira 14 atal ditu



**Parques y Jardines**

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tel.: 94 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# Pertsonaren gaitasunak lantzen

**Eroski Koop. Elkarteak eta Mondragon Unibertsitateak elkarlanerako hitzarmena sinatu berri dute. Honen arabera, Humanitateak-Enpresa karrera ikasten ari diren gazteek praktikak egin ahal izango dituzte Eroskin.**

Izan ere, Eroskiren jardura nagusia banaketa arloa da eta lan horretan gaitasuna duten langileak behar ditu. Era berean, ikasleek harreman zuzena izango dute enpresarekin, han dauden beharrak ezagutuz eta ikasitakoa haietara egokitzen ikasiz.

Datorren urtean 3. mailan dauden ikasleek kurtsuan zehar Eroskiko arduradun bat izango dute irakasle moduan laneko kontuak erakusten. Ondoren, 25-30 ikaslek bizpahiru hilabeteko lan praktikak egingo dituzte Eroskin.

Jose Antonio Mendikute, Humanitateak-Enpresa Fakultateko zuzendariak adierazitakoaren arabera, "hitzarmen honen helburua da jendeak lanpostuak lortzea. Horretarako, ikasketa orokorrak oraingo enpresen beharretara egokitu behar dira eta aukera hori eskaini nahi diegu gure ikasleei. Eskolak emateko orduan ere



Humanitate eta Enpresa fakultateak Eroskirekin elkarlanean hasiko dira.

metodologia berdina erabilten dugu".

## EMAITZA ONAK

Aldez aurretik egin dira oinarriko praktikak fakultate honetan. Humanitateak-Enpresa Fakultatea sortu zenetik, orain bi urte, industria eta zerbitzu arloetan eginak dituzte era honetako praktikak eta zuzendariaren esanetan, lortu dituzten emaitzak onak izan dira. Gainera, enpresekin lortutako harremanekin oso pozik daude. Industrian esaterako, Copreci eta Fagor bezalako enpresetan aritu dira eta zerbitzuetan, berriz, Euskadiko Kutxan eta Debegesan. Eroskin ere, 10 ikas-

le 160 orduz aritu dira aurren zenbait lan praktika egiten, "Humanitateak-Enpresa izeneko karrera berri hau sortu genuenean, enpresa taldeei (MCC-n, adibidez) azaldu zitzaizen zertan datzan eta oso harrera ona eman ziguten".

## HUMANITATEAK ETA ENPRESA

1997-98. ikasturtean sortu zen karrera hau. Hemen inguruko enpresen zuzendariak, batzorde bat eratu zuten MCCko zuzendariak eta zenbait irakaslerekin batera. Orduan ikusi zen eskoletan ematen diren gai teknikoak beharrezkoak badira, ikasleen gaitasun-

ak lantzea ere ezinbestekoa zela eta horrelaxe jaioten Humanitateak-Enpresa izeneko lizentziatura berria.

Euskal Herrian ikasketa mota hauek eskaintzen dituen bigarren zentroa da hau, bestea, Deustuko Unibertsitateko fakultate bat da eta Donostian dago.

Ikasketen %70 euskaraz ematen da, beste %30, berriz, gaztelaniaz. "Izan ere, guztia euskaraz emanez gero, jendeak gero lan askotan zailtasunak izan ditzake gaztelaniaz, eta oraingo egoera kontuan hartuta, gaztelania ondo menperatzea beharrezkoa da lan gehiengotzat".

**HIES  
EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industrialdia F-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941

ARETXABAETA

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78



astea bi hitzetan

■ Irratiak bost urte

Arrasate Irratiak bost urte bete ditu aurrean. Hori dela eta, irratiko maratona izan genuen herriko plazan ostiralean, ospakizun gisa. Irratiko langileek euren lana jendeari erakustea eta entzulearekiko hurbiltasuna areagotzea zen ekimen honen helburua. Era berean, Arrasate Irratiko kolaboratzaileek egiten duten lana jendaurrean jarri, esker ona erakutsi nahi izan zuten irratiko langileek.

Goizeko hamarrak laurden gutxitan herriko plaza-ko taulara igo eta hantxe izan ziren gaueko bederatzia arte. Ordu horietan, irratiko programazioa zuzen-zuzenean egin zuten. Ekitaldia, Goikobalu eta Goikobalu Txikiren saio batekin amaitu zen. Tartean opariak eta sariak ere banatu ziren.

■ Laguntza eskaera

Orlando Pineda Flores Nikaraguako Carlos Fonseca Amador Hezkuntza Elkarteko kidea Arrasaten izan zen ostegunean. Mitch urakanak eragindako kalteak konpontzen laguntzeko Arrasateko herritarrek erakutsitako eskuzabaltasuna eskertzeraz etorri zen. Era berean, orain bizi duten egoera latza- ren berri eman zuen. Izan ere, urakanak eragindako hondamendia izugarria izan da eta Nikaragua errautsetatik berreraiki beharra dago. Hori dela eta jendearen laguntza eskatu zuen Orlando Pineda Floresek.

■ 18 hilabeteko zigorra

Donostiako Auzitegiko epaile batek 18 hilabeteko zigorra eta ia milioi eta erdiko kalte ordaina ezarri dio arrasatear bati, Enrique F.M.ri,

orain hiru urte ia, hainkadaka belarri zati bat moztu ziolako beste mondragoetar bati, Miguel T.S.ri. Azken honi, bestalde, lau asteburuko espetxea ezarri dio, aurretik edalontzi batekin jo zuelako aurpegian. Liskarra San Andres auzoko Equus tabernan gertatu zen. Herri akuzazioak, bestalde, gora joko du, akusatua ezarri bost urte eskatzen zituen eta.

■ Zilarrezko ezteiak

CIMek eskolako atea ireki zituen joan den larunba tean. Hurrengo ekitaldia datorren astelehenean izango da. Orduan enpresetako jendeari zuzendutako hitzaldi bat emango du Bernd Kappel hizlariak. Ospakizun ekitaldiak, "CIM Eguna"-rekin bukatuko da. Maiatzaren 22an izango da egun hau.

BAKEAREN ALDEKO IBILALDIA

Larunbateko eguraldi eskasak ez zuen jendea kokildu eta milaka pertsonak Oñatitik Arantzazura dauden 8,5 kilometroak egin zituzten oinez. Arrasatek bi autobus joan ziren, Euskal Herriko Eliza Elkartearen deia jarraituz eta bakea eskatzeko.



“Aurreikusten denez Xabier Zubizarreta aukeratzen badu (Gipuzkoako diputatu nagusi gai izateko), Euskal Herritarrok-ek ezker abertzaleko lider veterano baten hautua egingo du Gipuzkoan, gestio eskarmentua duena Arrasateko Alkatetzan egindako urteetan. 1998 abuztuan (sic), Miguel Angel Blancoren hilketaren ostean, EAJ-EA-PSEk osaturiko hirutarikoak kendu egin zion alkatetza eta Jose Maria Loiti ezarri zuen agintean. Zubizarreta parlamentaria da Gasteizen eta bide luzea egin du ENHAMen barruan. 1995eko foru hauteskundeetan zerrendaburu izan zen Xabier Olano ordezkaturiko du lurralde honetan”.

**ALBERTO SURIO**  
*Diario Vasco*  
1999.4.16

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak  
Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE

ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

UGARTE

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943 -79 83 96 / 943 - 79 23 00  
Faxa: 943 - 793412



## Arrasatetik Txilera

Arrasateko udal liburutegiak 70 liburu bidaliko dizkio Txileko udal liburutegi bati. Izan ere, Santiago de Chilen bizi diren 200.000 pertsonentzat soilik 200 liburu daude orain El Bosque izeneko udal liburutegian. Noski, liburu kopuru hau motz gelditzen da irakurle kopuruarekiko, batez ere haurren kasuan. Hori dela eta, hango liburutegiko zuzendaria den Marta Agirrek, laguntza eskatu die udal liburutegiari eskaeraren bitartez.

Arrasateko udal liburutegiak eskaerari erantzuna eman dio 70 liburu zahar, bidaliz. Tartean eleberririk klasikoak, kontsulta liburuak, entziklopedia bat eta baita komikiak ere. Hauek guztiak Bilboko kaira bidaliko dira eta handik Txileko Valparaisoko portura. Gutxi gorabehera 18 egun barru helduko zaizkie.

Beste inoiz ere bidali izan dira liburuak beharra duten herrialdeetara, Kubara eta Boliviara, adibidez. Gehiengoz Gobernuz Kanpoko Erakunde bitartez egin ohi da, baina oraingoan udal liburutegiak bidaliko ditu zuzenean. Honek, 40.000 pezetako kostua izango du.

## Istripua Garibain

Asteazken goizaldean, motor batek A.G.V. 54 urteko gizon arrasatearra harrapatu zuen Garibai kaleko 14. zenbakia-  
ren parean. Ertzaintzak kon-  
tatutakoaren arabera, goizeko  
07:50ean, oinezkoen bidetik  
errepidea gurutzatzen zebile-  
la, 17 urteko D.A.R. gazteak  
bere motorraz harrapatu zuen.  
Biak eritetxera eraman zituz-  
ten, zauri arinak zituztela.

# Hautagai elebidunak eskatu dituzte AEDk eta EHEk

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak eskari bat egin die Arrasateko alderdi politikoei: hautagai elebidunak izenda ditzatela ekainaren 13ko hauteskundeetarako zerrendetan.

AEDk aitortu egiten du Arrasateko Udalak azken urteotan egin duen lana euskararen normalizazioaren alde. Besteak beste, udalbatzak iaz onartu zuen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana aipatzen du.

Hala ere, plan horren garapena alderdi politikoen esku dagoela dio. "Zinegotzi guztiak hemengo bi hizkuntza ofizialetan elebidunak ez diren artean, gainerakoen ahaleginek alferrikakoak izaten jarraituko dute", dio AEDk kaleratu duen oharrean.

Oraingoa primerako aukerarikusten du alderdi politikoen beste bultzada bat eman diezaioten euskarari. "Tamalez" segitzen du, "jakin badakigu zenbait alderdik ez diotela hizkuntza irizpide honi lehen-



Hamasei urteko lanak bermatzen du AEDren eskaria.

tasunik eman eta beste behin hautagai elebakarrak aurkeztuko ditzatela".

Udal euskaldun baten beharra aldarrikatu nahi duela, AEDk bat egin du Euskal Herriaren Euskaraz (EHE) elkarteak ostiral honetarako deitu duen kale agerraldian parte hartzeko.

EHEk ere bide beretik jo du kale agerraldia deitzeko orduan. Kezka azaldu du azken urteotan udalak izan duen bilakaeraz: "lehen hainbat batzorde euskaraz egiten

ziren eta orain ez, ez da hitzarmena betetzen eta beste administrazio publikoetako harreman asko erdaraz izaten dira". Euskararen erabilera bermatuko duen plangintza baten falta ere salatu du.

Alderdi politikoak oraindik osatzen ari dira hauteskunde zerrendak.

EAJ-EA, EH eta EB alderdiek zerrendaburu elebidunak dituzte. PSE-EE alderdiak ez. Eta PPK oraindik ez du kaleratu zerrendaburuaren izena.

## Futbolaz eta Athletic taldeaz berbetan

Joan den asteazkenean Imanol Etxeberria eta Mikel Lasa Athletic taldeko jokalariek Arrasaten izan ziren. Biteri egoitzak gonbidatuta, Josu Irigorri Herri Irratiko kazetariak zuzendu zuen hitzaldi batean egon ziren lehen mailako bi jokalariek. Aretoko nagusia Athleticzaleez betez.



Imanol Etxeberria hitzaldiaren une batean.



# MUK eta EHUK ikusmen artifiziala lantzen dihardute

Arrasateko Mondragon Unibertsitatea Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean ari da ordenadoreen erabilera errazteko ikerlan bat egiten. Ikusmen artifiziala lantzen dabilta.

Horren bitartez pertsona batek ordenadorea inolako bitartekaririk barik erabili ahal izango du. Hau da, bideo kamera industrial batek eta ordenadore pertsonal batek leku itxi batean dagoen pertsona identifikatu egiten dute. Horixe da ikusmen artifiziala.

Era berean, pertsona horren burua, hankak eta eskuak ere identifikatzen dira. Modu honetan, pertsona horrek edozein mugimendu eginez gero, ikusmen artifizialak mugimendu horiek jasotzen ditu. Ondorioz, pertsona horrek ez du ez sagu, ez betau-



Ikerketa honen bigarren aldiarekin dabilta orain.

rreko ez bestelako bitartekariaren beharrik ordenadorea erabiltzeko.

## ABANTAILA IZUGARRIA

Ordenadorea erabiltzeko metodologia berri honek abantaila izugarriak ekarriko lituzke, batez ere ume eta pertsona ezinduentzat. Egitasmo hau egiten ari direnak oso kontuan hartu dute jendearentzat ahalik eta eskuragarrien izatea.

Proiektu hau orain bi urte aurkeztu zen Eusko Jaurlaritzan eta sei milioi pezetako diru laguntza jaso zuen. Iazko martxoan hasi ziren lanean eta beste urtebeterako lana izango dute oraindik.

Lanean ari direnak, bestalde, Eskola Politeknikoko Bixente Atxa, Alberto Izagurre eta Jon Mikel Martinez dira eta EHUKo Josu Rekalde eta Augusto Zubíaga.

# Euskal presoen eskubideekin bueltaka

Aste honetan, Euskal Herriko beste unibertsitateekin bat eginez, Mondragon Unibertsitatean euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzeko ekitaldiak egin dira. Honela bada, astearte goizean bi ikasle hormetatik zintzilikatu ziren aurpegia estalita zutelara. Bitartean, beste ikasle bat maskara zuri bat eramanez aulki bati lotu zitzaion eskola aurrealdean.

Asteazkenean, berriz, sakanaketa buruzko hitzaldia izan zen Gazte Ekimenak antolatutako eta atzo itxialdia egin zuten Eskoriatzako fakultatean. Gaur Langraitzeko espetxera joan dira han dauden presoak agurtzera.

## ARETXABALETAKO PLATAFORMA

Bestalde, astearte arratsaldean Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformaren aurkezpen ekitaldia egin zen. Guztira 33 taldek eman diote baietza, kultura talde, sindikatu, kirol elkarte, eliza elkarte, alderdi politiko eta bestelako talde eta erakundeen artean.

Martxoaren 27ko kale agerraldiarekin eman zitzaion hasiera plataformaren lanari. Orain Kepa Urria preso atxabalدارra Langraitzera ekarri nahi dute. Langraitzetik Valdemoroko espetxera eramanez zuten epaiketa batean testi-



Honela egin zuten protesta Eskola Politeknikoko ikasleek.

fikatzeko. Epaiketa apirilaren 27an izango da. Hori dela eta, epaiketa ostean Langraitzera ekar dezatela eska-

tzeko Bilboko Ruth Alonso, espetxe epaileari, eskutiza igorri diote plataformaren izenean.





## PLAENTXI ARRASATEN

Soraluze aldeko gaztetxoak Arrasatera etorri ziren ostegunean. 7-8 urteko 36 neska-mutiko etorri ziren ARKO ezagutzera eta hementxe izan genituen euren jakinmina asetu nahirik.



## GIDARI GAZTEA

Begira zein mutikotxo polita harrapatu zuten gure argazkilariek Aretxabaletan. Arrasate Kirolak taldeko txirrindulari alebin eta haurrek lasterketa izan zuten larunbatean. Mutikotxoak bere adinkideekin ibili nahi eta bandera-txoa hartu zuen laguntzeko.



## KARTA TXAPELDUNAK

Bi hilabetez "izerdia" botatzen ibili ostean, hona hemen Toki Argik antolatutako karta jokoen irabazleak. Ezkerretik eskumara: Demetrio Velasco, Vicenta Lara, Ernesto Iglesias, Amparo Landa, Jose Ruiz (juntakoa), Evaristo Celemin, Cipriano Hernandez, Emilio Carmona eta Jose Martinez. Zorionak guztiei!!

**TXOKO  
TABERNA**

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE



## ARRASATE INTERNATIONAL

Nuremberg-eko ikasle talde hau Almen ikastolan izan da egun hauetan. Lehenago Almenekoak izan ziren han, alemana ikasten. Hangoak gaztelania jorrazera etorri dira, nahiz eta euskara ere ikasi duten apur bat. Egun batean Arkon izan genituen.



## ELKARTASUN IZERDITSUA

Mitch urakanak eragindakoak konpontzen laguntzeko dirua behar dela eta, Lirainek antolatuta, aerobitoia izan zen Iturripen. Batutako dirua Arrasateko Mugarik Gabeko Ingeniari-tza GKEak erabiliko du Nikaraguako Ocotal herrian etxebizitzak egiteko.



## HATOR, HATOR...

Gure Gazteteak zortzi urte bete ditu eta gauza piiiiloaaaa antolatu ditugu ospatzeko. Gu geu adibidez, Gaztetearen Historiari buruzko argazki erakusketan agertzen gara aste honetan. Gazte, anima hadi eta hator gurekin urtebetetzea ospatzera! Ez haiz damutuko!

*Ipek*  
Denda  
D

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

*Martxan dagoen*  
**TABERNA**  
**ALOKAGAI**  
**Urribarrin**

Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81



# Bastida Akademia: 36 urte lanean

Bastida Akademia M<sup>a</sup> Pilar Bastidak sortu zuen 1963an, On Jose Maria Arizmendiarrrietak animaturik, hau konturaturik baitzegoen administrazio ikasketak behar zirela kooperatibetan-eta erabiltzeko.

San Juaneko etxean gela bat prestatu eta hantxe hasi zen, idazmakina bat lagun zuela, lehen eskolak ematen. Hasierako irakasgaiak mekano-grafia eta takigrafia izan ziren. Geroago merkataritzako eskutitzak eta kontularitza etorri ziren. Urteak joan ahal, bai ikasleak eta baita irakasgaiak ere gehituz joan ziren. Hori zela eta, hiru urte igaro ostean, Okendo kalera pasatu zen akademia eta handik San Juanera berriro.

1989an erretiratu egin zen M<sup>a</sup> Pilar Bastida eta Lurdes alabak hartu zuen akademiaren gidaritza. Handik lasterrera Ferrerías kalera pasatu ziren eta 94an S. Andres aldera, gaur egungo tokira, 790 m<sup>2</sup>ko leku batera.

## ARO BERRIA

Gaur enpresa handia bihurtu da Bastida Akademia. 14 irakasle ditu plantillan, 6 autonomo gisa eta beste bi enpresa aholkularitza lana ematen. Irakasle berriak hartzen ditue-nean, hiru edo sei hilabete igarotzen dute akademian erabiltzen den metodologia ikasten. Irakasleen etengabeko



Lurdes Azkoaga, akademiako zuzendaria.

barruan: ofimatika (125 ordu), diseinu grafikoa (630 ordu), zuzendaritzako idazkaritza (350 ordu) eta pertsonal administrazioa (700 ordu). Ikastaro hauek doanekoak izaten dira, langabezian daudenei. Hitzarmen hauek direla eta, Lurdes etengabeko joan-etorrietan ibiltzen da Madrilera. Izan ere, gaur egun berak ez du eskolarik ematen. Zuzendaritza eta merkataritza lanak egiten ditu.

AKADEMIA	
BASTIDA	
• Zuzendaria.....	Lurdes Azkoaga
• Kudeatzailea .....	Nerea Belategi
• Administraria .....	M <sup>a</sup> Asun Sanz
• Kalitate arduraduna .....	Rafa Aranguren
• Informatikaria .....	Mari Caselles
• Irakasleak .....	20
• Ikasleak .....	3.000

prestakuntzak ere garrantzi handia du. Aurten, bestalde, 3.000 ikasle ibiliko dira ikastaro bat edo beste egiten Bastidan. Gazteenak 12 urterekin hasten dira. Zaharrenak 80 bat urte izango ditu. Ikasle gehienak inguruko enpresetan dabilta. Ateak goizeko 07:00etan irekitzen dira eta, gaueko 24:00ak arte zabalik egoten dira.

Irakasgaiak dagokienez, zazpi eremu nagusi lantzen ditu gaur egun Bastida Akademia: informatika, kalitatea, kontularitza, zergen kudeaketa, hizkuntzak, Internet eta ingeniari-tza. Hitzarmen bereziak ditu Inemekin eta baita Forcem eta Hobetuz erakundeekin ere. Aurten, adibidez, lau ikastaro ematen ari da Inemekin hitzartutako itunaren

## TEKNOLOGIA

Ikasketak bukatutakoan Bastida Akademia diploma bat ematen die ikasleei, ofizialtasunik ez duena, baina akademiaren seriotasunaren adierazgarri dena.

Eratub informatizaturik dago akademia. 100 bat konputagailu dauzka, denak sarean. Urtero-urtero berriztatu egiten dute multzo handi bat. Aurten 45 erosi dituzte. Erabiltakoak bigarren eskuko merkatuan saltzen dituzte.

Informatika eta hizkuntzak irakasteko programak denak multimediakoak dira.

Bi erronka nagusi ditu Bastidak epe laburrera: multimediako programak euskaratzea eta ISO 9.000 kalitate ziurtagiria lortzea. Dagoeneko kontu ikuskatzeak egiten ari dira azken helburu hau lortzeko


Ekainerako edo, espero dute izatea.

**LAKET**  
Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis  
Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

**Danona**  
KARROZERIAK  
Konponketak, txapa eta pintura  
Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

**Ψ**  
NARE  
psikologoak  
Haurrak - helduak - bikoteak  
RPS: 292/98  
Isasi, 17 - 1 • EIBAR •  
Tel.: 943 20 05 95





# Jena AUTO

## 2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen aldizkaria.

6. zenbakia. 1999ko apirila.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trubxuelo.

Tirada: 11.500 ale.

Berrigara Berrigarako aldizkaria

Arrasate P R E S S



**MARKA ETA MODELOA                      MATRIK.                      URTEA                      EZAUGARRIAK                      PREZIOA**
**AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30**

Peugeot 406 ST 2.0			IZ, KE, LD, AG, ABS	*7
Peugeot 406 ST 1.8			IZ, KE, LD, AG	*7
Peugeot 205 D			IZ, KE, LD, AG, 5 ate	*5
Peugeot 106 Sketch 1.1				*4
Renault Clio 1.2				*2

**BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43**

Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD, KE, IZ, LK, AH	*3
Ford Scort 1.6 RS Turbo	SS-AJ	1990	Autobloc, KM gutxi	*3
Ford Sierra 2.0i Sport	BI-AZ	1989	LD, KE, IZ, AG, SE	*2
Renault Supercinco CTX	SS-AB	1988	KE, IZ, LK, AH	*1
Ford Orion 1.6i Ghia	SS-AB	1988	KE, IZ	*1
Citroen BX TZD Turbo	SS-AM	1992	KE, IZ, LD, AH, ABS, AG, LK	*3
Audi 80 1.8E	SS-AB	1988	KE, IZ, LD	*3

**BLANCO TAILERRAK (NISSAN BERGARA). Amillaga 22. Bergara. Tf. 943 76 17 35**

Peugeot 405 GR 1.9	SS-AC	1998	KE, IZ, SE, IK	*2
Nissan Bluebirth 1.8 Turbo Gti	SS-AF	1989	KE, IZ, LD, AG, IK, AH	*2
Renault 21 2.0i Turbo	SS-AF	1989	KE, IZ, LD, IK, AH, AL, Ordenagailua	*2

**ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49**


Citroen Evasion (Monovolumen)	Ugari	96-97		*7
Ford Mondeo 2.0 16V		1993	Full Equiped	*5
Citoren AX TRD		1990	Kilometro gutxi, 5ate	*3
Opel Vectra 2.0i GT		1991	ABS, AG...	*4
Land Rover Discovery			AG, AH, Sapai bikoitza...	*7
Peuegeto 205 Diesel		1990	5 ate	*3

AG: Aire girotua    AH: Aleaziozko haginak    AL: Alarma    BA: Balbula anitza    IE: Ispilu elektrikoak  
 HT: Hard top    IK: Irrati-kaseta    IZ: Ibxigailu zentralizatua    KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
 KL: Klimatizagailua    LD: Lagunduriko direkzioa    LGT: Lau gurpiletako trakzioa    LK: Laino-kontrako argiak  
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak    NT: Narruzko tapizeria    SE: Sapai elektrikoak    UM: Urruneko managailua

\*1: 300.000 PTArate arte  
 \*2: 300.000-500.000 PTA  
 \*3: 500.000-750.000 PTA  
 \*4: 750.000-1.000.000 PTA

\*5: 1.000.000-1.500.000 PTA  
 \*6: 1.500.000-2.000.000 PTA  
 \*7: 2.000.000 PTatik aurrera

**GARAJE MURILLO**
**Mekanika orokorra**

 Leizeaga 4 • Bergara  
 Tf. 943 76 13 84


Garraioaren mundua

**LAGUN GARAJEA**

**Javier Gallastegi Arenaza**

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

**ORAIN HELBIDE BERRIA!**

Santalaitz 3. Bergara. Tf. 943 76 11 20


**AGUSTIN**

 Automobilaren  
 karburazio eta  
 elektronika

 Uribarri etorbidea 16.  
 Arrasate. 943 79 73 58



**MARKA ETA MODELOA      MATRIK.      URTEA      EZAUGARRIAK      PREZIOA**
**MUGARRI.** Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44

Mondeo TDI	SS-AW	96	AG, Full equiped	1.775.000
Mondeo TDI	SS-AS	94	AG, ABS, 2 Airbag, KE	1.750.000
Mondeo TDI	SS-AX	97	AG, ABS, 2 Airbag, KE	2.275.000
Mondeo TDI	BI-BC	95	AG, Full Equiped	1.750.000
Probe 24 i-v	SS-AX	97	Full Equiped	2.650.000
Escort BSI	SS-AN	93	Full Equiped	1.200.000
Escort BSI 4X4	SS-AT	94	Full Equiped	1.500.000
Citroen ZX-I	PM-CJ	96	AG, Full equiped	1.090.000
Renault Express	SS-AL	91	Hainbat osagarri	590.000
C-15 Citroen	SS-AH	90	Hainbat osagarri	475.000

**OLA TAILERRAK.** Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Smart		1999	ABS, 2 Airbag, IZ, KE, UM	*5
Opel Vectra		1998	ABS, AG, KE, IZ, UM, IK	*7
Renault Clio 1.1		1991	IK, 3 ate	*2
Opel Astra GLS1.6i		1992	IK, AG, LD, IZ, KE	*4
Citroen ZX Tentacion 1.9D		1997	IK, IZ, KE, LD, 5 ate	*5
Marka eta modelo ugari		Ugari	Ezaugarri ezberdinak	*1

**SEAT UDALAITZ.** Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80

Peugeot 405 SRT	SS-AN	1992	AG, ABS	750000
VW Golf 1.9 TD	BI-BS	1993		1200000
VW Golf 1.4	SS-AL	1996		675000

**Honako egun hauetan aterako dira hurrengo Dena Auto zenbakiak:**

- Ekainak 4
- Uztailak 9
- Urriak 15
- Azaroak 26

San Kristobal dela eta,  
**Uztailaren 9**ko alea motorrari buruzko berezia izango da.

AG: Aire girotua    AH: Aleaziozko hagnak    AL: Alarma    BA: Balbula anitza    IE: Ispilu elektrikoak  
 HT: Hard top    IK: Irrati-kaseta    IZ: Itxigailu zentralizatua    KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
 KL: Klimatizagailua    LD: Lagunduriko direkzioa    LGT: Lau gurpiletako trakzioa    LK: Laino-kontrako argiak  
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak    NT: Narruzko tapizeria    SE: Sapai elektrikoak    UM: Urruneko managailua

\*1: 300.000 PTara arte  
 \*2: 300.000-500.000 PTA  
 \*3: 500.000-750.000 PTA  
 \*4: 750.000-1.000.000 PTA

\*5: 1.000.000-1.500.000 PTA  
 \*6: 1.500.000-2.000.000 PTA  
 \*7: 2.000.000 PTAtik aurrera

**JASO GARAJEA**

Autoen konponketa orokorra



Amillaga 1, 4 pabilioia.  
 Bergara. Tf. 943 76 33 00

**PEUGEOT**

Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
 Gesalibar auzoa z/g. Tf. 943 79 99 61 • ARRASATE

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!



**Txorno**  
 Auto-errekantbioak  
 Ibargarai 33, behea. BERGARA  
 943 76 29 95



**KANPAZAR FIAT**

*Alfa Romeo* 

## Fiat Multipla



**Autoaren kontzeptua aldatzen duen autoa**

**Alfak diesel motorrentzako  
unijet injekzio sistema  
dauka barnean**



## Alfa Romeo 156

Tailerra: Bizkaia Etorbidea, z/g. Tel.: 943 79 41 98. Faxa: 943 77 12 84

Erakusketa: Araba Etorbidea, 32. Tel.: 943 79 77 66

ARRASATE - Gipuzkoa




# Baserriko oiloa Udalatik etorriko zaigu

“Oiloa baserritarrek hazten, kaletarrek jaten”, dio esaera zaharrak. Hori kontuan hartuta, Udalako Zubia anai-arrebak baserriko oiloak hazten hasiko dira uda partean, Bengoa baserrian.

Uste baino erronka latzagoa izan dezakete. Izan ere, bi oztopo gainditu beharko dituzte. Bat, prezioa. Baserrian hazitako oilaskoa, 1,5 edo 2 kilokoa, hiru aldiz garestiagoa baita granjan hazitakoa baino; lehenak 1.500 pta balio du eta bigarrenak 500 inguru. Bigarren eragazpena okelaren bestelakotasuna izango da. Baserriko oilaskoaren okela gogorragoa da eta, bestea baino. Hala ere, kontsumitzaileak kalitatea hobesten duela eta, aurrera egingo dute Zubiatarrek.

Horretarako Lumagorri elkartean sartu dira. Hau orain bost bat urte sortu zen, baserriko oiloen



hazkuntza bultzatzeko. “Kalitatea” izeneko zigilua darama Lumagorri hazitako oiloen okelak. Horretarako, hala ere, hainbat baldintza bete behar da.

Oilategi bakoitzean gehienez jota 1.000 bat oilo hazi ahal izango dituzte. Horrez gain, gutxieneko eremu bat behar da, oilo bakoitzak bi metro koadro, hegaztiek ibiltzeko aukera izan dezaten. Hasteko, dena den, bi oilategi eraikiko dituzte, 2.000 bat oilo hazi ahal izateko.

Lumagorri elkartea

arduratuko da oiloak ekartzen —bizpahiru egun dituztela ekarri ohi dituzte— eta hazitakoan, hiltzen eta banatzen. Zeraingo hiltzean hiltzen dituzte, prozedura jakin eta zehatz bati jarraituz. Ondoren banaketa etortzen da, “kalitatea” zigilua erabiliz.

Udatik aurrera, bada, behar den moduko oilaskoa jan ahal izango dugu, hemen bertan hazitakoa. Oilosalda ere ez da gutxieste gauza. Eta ez ahaztu, “falta bada oilosalda, ona da porrusalda”.

## Euroa

Izango da laguntza berezirik zaharrentzat edo elbarrituentzat?

Oraingo ez dago kanpaina berezirik aurreikusita, nahiz eta Europako Batasunak gobernuak bultzatu dituen talde berezi horiek presta ditzaten euroa datorrenerako. ONCEk badu asmoa itsuak eta, billete berriekin ohitu daitezten. Edozelan ere, euroa indarrean sartzeko egunak (2002ko urtarrila-uztaila) hurbildu ahala, areagotu egingo dira informazio kanpainak.



**Euro baten balioa**

**166,386 pta**



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



# Hegohaxe, euskara Ipar

**250.000 bat biztanle bizi dira ipar Euskal Herrian, eta horietako %26,4 bakarrik mintzatzen da euskaraz. Hezkuntzari dagokionez ere, Euskal Herriko hegoaldearekin alderatuta egoera oso bestelakoa da: ikasleen %15ek baino ez ditu ikasketak euskaraz egiten. Errealitate ilun horren argi printza da Seaska, iparraldeko ikastolen elkarteak. Seaskari lagunduz, berriz, Arrasateko Hegohaxek dihardu.**

**1** 992. urtean sortu zen Hegohaxe taldea, Seaskako ikastolen alde lan egiteko asmoz. Iban Lazkano, Danel Goikolea, Ugutz Garitaonandia, Nagore Iraola, Iñaki Barrena, Aner Arregi eta Jasone Mendizabal arrasatearrek eta Saioa Arando eta Pello Gomez aretxabaletarrek osatzen dute laguntaldea. Hegohaxe taldea sortu baino bost urte lehenago eraiki zen Euskal Herriko Iparraldean lehen lizeoa, hainbat guraso eta talderen izerdiarekin. Ahalgin horri, Hegohaxe taldearena ere batu zitzaion, sortuz geroztik hainbat egitasmo eraman baitituzte aurrera: auzo-landegiak Iparraldeko ikastoletan, Iparraldeari buruzko erakusketak, hitzaldiak, ikuskizunak, kontzertuak, diru bilketak, ikastolen aldeko kanpainak...

Horretaz guztiaz gain, Hegohaxekoek ere urteroko lagundu izan dute Herri Urratsen, Iparraldeko ikastolen aldeko jaietan. Ibilbidea zehazten, Euskal Tonbolaren bidez jaiak girotzen, garbiketa lanak egiten eta jaiaren antolakuntzan ere beren aletxoak utzi izan dute. Halere, ahalegin horrek poztasun handia ematen die Hegoaxekoei, Jasone Mendizabalek esan digun

bezala: "Kanboko pilotalekua guk eraiki genuen, eta hantxe jokatzek zirrara berezia sortarazten digu".

## SEASKA

Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioa da Seaska. Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako 19 ikastola, 2 kolegio eta lizeo bat daude federazio horren barnean. Ikasturte honetan 1.705 ikasle eta 140 inguru langile ditu guztira. Baina Seaskak gaurdaino egin duen bidea malkartsua izan da oso.

1969an zabaldu zuten lehen ikastola, 8 ikaslerekin. Urte askoan egin behar izan dute aurrera inolako onarpen ofizialik gabe, eta 1983ko urriaren 14an lehen hitzarmena sinatu zuten administrazioarekin. Euskarazko irakaskuntzaren ezagupena urrun zegoen oraindik, nolahi ere.

1993an izenpetu zuen Hezkunde Nazionalarekin azken akordioa, eta horren bidez Seaskaren irakaskuntza sarea erakunde publiko eta administrazioaren barne geratu da. Itunak hainbat ondorio dakartzio Seaskari; besteak beste, ikastoletako materiala konputuan hartzen da azterketak prestatzerakoan, eta eskola guztiek tratamendu bera jasotzeko ere urratsak egiten ari



Hegohaxeren asteroko bilerak mahai inguruan ardoarekin egiten dira.

dira. Bestalde, hitzarmenaren bidez estatuko gainerako irakasleen gisan Seaskakoek ere euren soldata jasotzen hasi ziren.

## ARAZO NAGUSIAK

1993an sinatutako hitzarmenak ez ditu Seaskaren arazo guztiak konpontzen, ordea. Izan ere, administrazioaren aldetik jasotzen duen diru laguntza oso txikia da, administrazioak ez baitu Seaskaren berezko egitura baten beharra ikusten.


Bestalde, Iparraldean ikasketxeen eraikuntza tokian-tokiko administrazioaren ardura da, eta, ondorioz, baita ikasketxei behar dituzten tokiak ematea ere. Dena den, Seaskako ikastolek arazo ugari

dituzte egoitza horiek esku-ratzeko, eta Kanboko bigarren mailako ikastetxea, adibidez, administrazioaren diru laguntzarik gabe eraiki zen. Horretaz gain, ofizialki euskarak Iparraldean ez du existitzen. Hori dela eta, ikastolako ikasleek 15 urte luzez euskaraz ika-

**“Arrasaten herriko toki eta eta pertsona ezagunen inguruan bidaia egingo du antxetak”**



# Iparaldean hedatzen



si eta gero, baxoa (unibertsitatean sartzeko azterketa) frantsesez egitera behartuta daude.

## ANTXETAREN KANPAINA

Ziburun euskal kolegio bat finantzatzeko erronka du beregain orain Seaskak. Duela hamasei urte ireki zuten Kanbon Xalbador, bigarren mailako euskal kolegioa. Txikiegi gelditu zaie, ordea, eta iazko irailaz geroztik Ziburuko Marinel Eskola zaharrak, Seaskako bigarren kolegioak, atek ireki zituen. Harrezkero 75 ikaslek ikasten dute han; lau gelatan daude banatuta, eta hemezortzi irakasle dituzte.

Ziburuko kolegioa da, gainera, Iparraldeko kostaldean euskaraz normaltasunez irakats dezakeen eta etorkizuna-



Seaskak lan izugarria egiten du euskararen alde.

1969: 1 ikastola eta 8 ikasle

1970: 2 ikastola eta 19 ikasle

1975: 11 ikastola eta 105 ikasle

1990: 15 ikastola eta 1.000 ikasle

1996: 19 ikastola eta 1.451 ikasle

1998: 22 ikastola eta 1.705 ikasle

## Hegohaxeren ekimenak

- 1992 • Auzolandegiak Kanbon: logelak egin.
- 1993 • Auzolandegiak Kanbon: frontoia eraiki.
- 1994 • Auzolandegiak Kanbon: aulkiak egin eta tindaketa lanak.
- Auzolandegiak basaizea kultura elkartean.
- Bizikleta ibilaldia Arrasatetik Iparraldera, Iparraldeko gazte talde batekin elkartzuz.
- Auzolandegiak Senpereko Ostikena elkartean.
- Eperra ikastolaren aldeko kanpaina.
- Diru bilketa: bono salmenta, material salmenta...
- Auzolandegiak Eperra ikastolan.
- 'Iparhaxe', kultura astea Arrasaten, Eperra ikastolaren alde Iparraldeari buruzko erakusketak, hitzaldiak, 'zeruetako izarrak' ikuskizuna, kontzertua gaztetxean...
- 1998 • Urruñako ikastolaren aldeko kanpaina.
- 'Harri bat Urruñako ikastolaren alde' kanpaina herriratu.
- 1999 • Ziburuko ikastolaren aldeko kanpaina.
- 'Antxetaren kanpaina'.
- Auzolandegiak Ziburuko ikastolaren alde.

ri begira euskalduntzearen alde lan egiten duen hezkuntza egitura bakarra.

Jasone Mendizabal Hegohaxe taldeko partaideak adierazi bezala, Ziburuko kolegioaren etorkizuna ez dago bat ere finkatua, ordea: "bi urteko alokatze kontratua dute, baina, gero eta ikasle gehiago dituztela eta, beren kolegioa izan nahi dute. Horregatik, urrian abian jarri zuten Antxetaren kanpaina. Antxeta edo kaioa Euskal Herri osora hegaldatu nahi dute, hegalkada bakoitzeko jendearen laguntza eskatuz. Milioi bateko diru laguntza lortzea dute helburu, 200 liberako 5.000 hegalkadaren bidez".

## LAGUNTZA BONOAK

Horretarako laguntza bonoak atera dituzte Seaskakoek, eta AEDn ere eskuragai izango

dira. Diru laguntzen bidez antxeta hegaldatzen duen bakoitzak oroigarri bat jasoko du etxean, eta horretaz gain, bidaia bat ere zozkatuko da laguntza eskaini duten guztien artean.

Jasonek Arrasaten hegaldaldi berezia egingo dela ere jakinarazi digu: "herriko toki eta pertsona ezagunen inguruan bidaia egingo du antxetak. Bidaia horrek 44 pausaldi izango ditu eta hegaldien bidez antxetak bere bidea buka dezan da helburua. Herriko zenbait toki esanguratsutan antxetaren hegaldien berri ematen duten hormirudiak ezarriko ditugu. Jendeak diru laguntza eman ahal, pausaldiak ezabatuz joango gara".

Maidor Osa





## Sarearen beste aldean

**B**egiratu duzue inoiz sarearen beste aldetik? Guk jakinmin hori geneukan eta joan den igandean Zaldibarrera hurbildu ginen sarearen beste aldetik ikusten dena jakin nahian. Zutoinak margotzea ere ez litzateke gaizki etorriko, ezta?

## Laburrak

### ■ FIN OPOR OSTEAN

Aste Santuko oporren bueltan Zaldibarko talde guztiek fin bete zuten 4. jardunaldiko konpromisioa. Ez zuen talde batek ere kale egin. Bide onean doa-zela dirudi!

### ■ A TALDEAN

A taldean Txantxiku Kirolak-ek jaun eta jabe segitzen du. Opor ostean ere hamaika gol sartu zituen eta Branka Tabernak, Irati STS taldearen aurka

lortutako berdinketari esker, ia ziurtatuta dute hirugarren aldirako txartela. Beste bi tokiak, Jotakabau, Dribling, Komando Alpagat eta Irati STS taldeek jokatuko dituzte, nahiz eta beste bi taldeek ere aurrerak dituzten, matematika tarte-ko.

### ■ B TALDEAN

B taldean Aldibik bere lehenengo puntua galdu du, Potro-aken alde. Bi taldeek berdin-

keta lortu zuten 4. jardunaldian. DKB, Koka Juniors eta Fraguél Gol taldeek aukera guztiak galdu dituzte, nola eta dena irabazten ez badute beste guztiak galtzen dutenean.

### ■ D TALDEAN

D taldean aipagarriena lider aldaketa dugu. Orain Lontxo Taberna igo da lehen tokira, golaberagea dela eta. Kinie-lak egiteko orduan, talde zaba-lena da D taldea. Nahiz eta bi

lehen sailkatuek alde nabar-mena duten beste talde guz-tiekiko, beste seien artean dagoen tarte ez da hain nabar-mena.

### ■ E TALDEAN

Naranaja Mecanica taldearen aurka ezin da ezer egin. Orain arteko norgehiagoka guztiak irabazi ditu eta. Kontuz Soko-akoa taldekoek! Martxa hone-tan ez dute iazko denboraldi-koa egiterik izango eta!

**TOLDOS  
LECE C/B**

Kataide Industrialdea, 14  
Musakola • ARRASATE  
Tel.: 943 79 23 83  
Faxa: 943 77 04 45

**Eguzkiari  
aurre egiten  
diogu inork  
baino hobeto**

X Bataioak, jaunartzeak,  
enpresa bazkariak eta  
lagunartekoak

X Karta eta menu  
berezien zerbitzua

**DENBORALDIKO  
PLATERAK,  
GIRO ONENEAN**



## BASTER-ALDE

# J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALET A

Tel.: 943 79 24 58



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Txantxiku Kirolak	4	3	1	0	31	12	<b>7</b>
Branka Taberna	4	2	2	0	22	17	<b>6</b>
Jotakabau	4	1	3	0	13	11	<b>5</b>
Dribling	4	2	0	2	13	16	<b>4</b>
Komando Alpagat	4	1	2	1	16	20	<b>4</b>
Irati STS	4	1	2	1	17	15	<b>4</b>
Aita Menni 2010	4	0	2	2	13	21	<b>2</b>
Leya	4	0	0	4	13	26	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Aldibi	4	3	1	0	26	13	<b>7</b>
Potroak	4	2	2	0	20	12	<b>6</b>
Garaje Oskar	4	3	0	1	17	19	<b>6</b>
You Know	4	2	0	2	22	14	<b>4</b>
KKJauri	4	2	0	2	20	27	<b>4</b>
DKB	4	0	2	2	14	20	<b>2</b>
Koka Juniors	4	1	0	3	14	21	<b>2</b>
Fragel Gol	4	0	1	3	10	17	<b>1</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Lontxo Taberna	4	3	1	0	30	13	<b>7</b>
AC Surkos	4	3	1	0	30	18	<b>7</b>
Pepelus	4	2	1	1	17	18	<b>5</b>
Xhasss Ugarte	4	2	0	2	19	19	<b>4</b>
Diego Antonio	4	1	1	2	21	21	<b>3</b>
Aurrera Bolie	4	0	2	2	16	20	<b>2</b>
AT Celaya	4	1	0	3	20	30	<b>2</b>
Kamasutra	4	1	0	3	12	26	<b>2</b>

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	4	4	0	0	33	11	<b>8</b>
Orlando Piratas	4	3	0	1	23	13	<b>6</b>
EPEH	4	3	0	1	23	16	<b>6</b>
Totem	4	2	1	1	15	22	<b>5</b>
Sokoakoak	4	1	1	2	15	16	<b>3</b>
Insert Coin	4	1	1	2	10	18	<b>3</b>
Saukelu Scream	4	0	1	3	8	21	<b>1</b>
Ke Oxtias	4	0	0	4	4	14	<b>0</b>



## Emaitzak

### A taldea

Txantxiku Kir. 11 - K. Alpagat 3  
Aita Menni 2010 3 - Dribling 5  
Irati STS 4 - Branka Taberna 4  
Jotakabau 5 - Leya 3

### B taldea

You Know 6 - Fraguel Gol 1  
DKB 3 - KKJauri 7  
Potroak 4 - Aldibi 4  
Garaje Oscar 6 - Koka Juniors 4

### D taldea

AC Surkos 11 - AT Celaya 6  
Diego Antonio 5 - Xhasss Ug. 6  
Lontxo Tab. 10 - Kamasutra 0  
Aurrera Bolie 3 - Pepelus 4

### E taldea

Orlando Piratas 1 - Ke Oxtias 0  
Insert Coin 2 - EPEH 7  
Naranja Mec. 5 - Saukelu Sc. 3  
Totem 7 - Sokoakoak 6

## Elkarrizketa

### Markel Zabala (Aurrera Bolie)

#### — Zenbat urte daramatzazu Zaldibarren jokatzen?

— Sei urte. Lagun taldekook ahal bezain laster, 16 urterekin, eman genuen izena. Esperientzia polita izan da, gustura nabil; gainera, azken lau urteotan bigarren aldirako sailkatu gara, eta urtero gero eta aldi altuagoetara heltzen gara.

#### — Nola doakizue aurten?

— Gaizki. Ohi dugunez, bigarren aldira igaro ginen, baina hau bukatzeko hiru partida falta dira eta denak irabazita ere, zaila izango dugu hurrengorako sailkatzea. Aukera gutxi ditugu. Gaur, gainera, Pepelusen kontra galdu dugu.

#### — Golik sartu duzu?


— Defentsa izanik, hiru gol sartu ditut bakarrik.

#### — Zein da zure talderik gustukoena?

— Leya. Leyako atezaina oso ona iruditzen zait, eta taldea, orohar, gustukoa dut.

#### — Non nahiago: Zaldibarren ala Iturripen?

— Zaldibarren. Iturripeneko jokalekuak txikiak dira eta baloia gogor joz gero, urrunera joan daiteke eta gero baloiak bilatzera joan beharra daukagu. Zaldibarren, ordea, atek handiagoak dira, jokatzeke leku gehiago dago eta batez ere, paretak asko laguntzen du. Txikiagoa izan arren, gehiago nekatzen naiz Iturripen jokatzen.



## Hurrengo partidak

### 2.aldia 3. jardunaldia

#### Apirilak 24, larunbata Zaldibar

08:50	Koka Juniors - Fraguel Gol
10:00	Irati STS - Dribling
11:00	Orlando Piratas - Totem
12:00	Naranja Mecanica - EPEH
13:00	Leya - Komando Alpagat
14:00	Potroak - KKJauri
15:00	Aita Menni 2010 - Branka Tab.
16:00	Lontxo Taberna - Xhasss Ugarte
17:00	Insert Coin - Saukelu Scream
18:00	DKB - Aldibi
19:00	AC Surkos - Aurrera Bolie

#### Apirilak 25, igandea

09:50	Diego Antonio - Kamasutra
11:00	Pepelus - AT Celaya
12:00	You Know - Garaje Oscar
13:00	Txantxiku Kirolak - Jotakabau



Arrasate Kirolak haur taldekoa

## MARKEL LASAGA

*“Belaunak erabat hoztuta gelditu zitzaizkidan”*

— **Aretxabaletan bigarren izan zinela eta, gustura?**

— Bai, gainera oso gogorra izan zen, nahiz eta ez zen lasterketa azkarra izan. Azken aurreko bueltan tropelean asko gindoazen. Halako batean esprinta jokatzeko ari nintzen lasterketa irabazi zuenarikin. Belaunak erabat hoztuta nituen eta ezin izan nuen lehen tokia eskuratu.

— **Irabazi duzu lasterketarik?**

— Iaz hirutan bigarren izan nintzen eta birritan hirugarren.

— **Zirkuito itxietan aritzen zarete. Errepidean aritzea nahiko zenuke?**

— Arrisku handia dagoela eta, haur mailara arte ez gara errepidera ateratzen, baina, bai, nahi dut.

— **Mendian ala lauan nahiago?**

— Denetik. Lauan hala ere, jende guztia tropelean joaten da eta ezin izan liteke. Agian mendia hobe izan liteke zerbait lortu nahi izanez gero.

— **Zein txirrindulari duzu gustukoena?**


— Jean Ulrich.

— **Berak irabaziko du Tourra?**

— Bai, ziur naiz.

— **Ze lasterketa irabazi nahiko zenuke?**

— Arrasatekoa. Aurten saiatu egingo naiz, baina zaila izango da.



## SASKIBALOIA Partida ona, emaitza txarra



Kenci-Arrasate Saskibaloitako taldeak ezin izan zuen garaipena ekarri Bilbotik. 77 eta 74 galdu zuen Torregi la Peñaren aurka. Danel eta Zesarren mutilek gaizki hasi zuten partida, baina berdintzea ere lortu zuten. Bigarren zatian aurreratu egin ziren, baina asko borrokatuta ere, ezin garaipena etxera ekarri. Aialak 20 tantu lortu zituen eta Gamarrak, 22. Larunbatean Iturripen arituko dira, Oriokoren aurka, arratsaldeko 19:15etan. Oriotarrak azkenak dira sailkapenean. Beraz, partida erraza izan daiteke.

## FUTBOLA Nahi bai, ezin baina



0 eta 1, baina eta azkenean 2 eta 1. Horixe izan zen Bergararen eta Mondraren arteko partidaren ibilbidea. Mondrakoek irabazi beharra zuten, sailkapeneko azken aurreko tokian daudelako. Baina Bergarakoek lehen tokia berreskuratu nahi zuten. Preferentea arrisku bizian dago Mondrakoentzat. Aurretik dituen talde guztiek galduko balute ere, zaila izango lukete mailari eustea. Igan-dean Anaitasunaren bisita izango dute Atxabalpen, 16:30etan.

## ESKUBALOIA Gazte mailan oso ondo



Gazte mailako eskubaloitako taldeak goiko tokiei eutsi zien larunbatean ere. Almenen aurka aritu ziren eta, ozta-ozta izan zen arren, garaipena eskuratu zuten Faustino Gorostizaren jokalariek. 17 eta 18, mondragoetarren alde. Aste honetan merezitako atsedena izango dute. Haur mailako taldeak, bestalde, Aloña Mendiren bisita izango du Iturripen, 16:30etan.

## TXIRRINDULARITZA Garaipena Granadan



Igan-dean amaitu zen afizionatu mailako Granadako Itzulia. Born Jay taldekoak han aritu ziren asteazkenetik igandera bitartean eta itzuli ona egin zuten. Jon del Riok lehen tokia eskuratu zuen ostiral goizean, Fuentevaqueros herrian. Bezperan, gainera, hirugarren egin zuen. Osteguna ezkerre, bestalde, Arabako Itzulian ari dira Arrasateko afizionatuak. Larunbatean Arrasate zeharkatuko dute 12:15ean.

Fagor taldeko gazte mailakoak, bestalde, Udaberriko X saria jokatuko dute larunbatean, Zarautzen. Bigarren urteko JMA taldeko haur mailakoak XV Santa Cruz proban izango dira Zegaman. Lehen urtekoak, berriz, Ikaztegietan.

Infantilak joan den aste-ko bigarren tokia hobetzen saiatuko dira Bergaran larunbatean.

## ERRUGBIA Arrasateko partidak



Gazte mailako taldea Eibarren aurka arituko da Gargatzan, bihar, 16:30etan. Joan den asteburuan 102-0 galdu zuten Irunen aurka.

Infantilak, kontzentrazioa izango dute 10:00etan. Bertan izango dira Ordizia, Zarautz, Hernani eta Eibarko taldeak.




# Gutxienez Deba Arroko azpitxapeldunak

Uribarren eta Dominguez, haur mailako pilotariak, gutxienez Deba Arroko eskuz binakako pilota txapelketako azpitxapeldunak izango dira. Zergatik? Larunbatean, Eibar-ko Astelena pilotalekuan txapelketa horretako finala jokatuko dutelako, plaentxiarren aurka. Joan den larunbatean Itziarke Lopez eta Azkoagaren aurka 22 eta 12 irabazi zuten final erdietako bigarren partidari. Iturripen aritu ziren eta nahiz eta mondragoetarrak ondo hasi ez, urduritasuna ahaztu eta laster hasi ziren hobeto jokatzen. Partida gogorra egin zen ordea, Lopezek eta Azkoagak ez zuten eta, amore eman nahi. Baina arazoak izan zituzten. Atzelariak eskuan min zuela eta, lekuz aldatu zuten. Hori Uribarren eta Dominguez mesederako izan zen.

## PILOTARI FINAK

Uribarren aurrelaria ondo aritzen da errematean. Tantuak



22 eta 12 irabazi zuten Uribarren eta Dominguezek.

izkutatzen ere artista omen da eta ezkertiarra izanik, bi eskuekin defendatzen daki. Dominguez, berriz, oso segurua da jokoan eta ezkerrekin ere ondo defendatzen da. Maila polita dutela dio Mauri Zubillaga entrenatzaileak. Hori dela eta, larunbatean, arratsaldeko 18:00etan, txapela eskuratzeko aukera guztiak

dituzte. Bi pilotariak, gainera, herri arteko Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute, baina maila bat gorago, gazte mailan, hain zuzen ere.

## HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Astearte iluntzean egin zen Gipuzkoako herri arteko txapelketako zozketa. Arrasate

8. taldean arituko da, Berasategi eta Debaren aurka. Igan-dean izango dira lehenengo partidak. Goizeko 10:30ean Iturripen Arrasate eta Deba arituko dira. Mondragoetarrak hauek izango dira: haur mailan, Rodriguez I eta Jimenez, I; gazte mailan, Uribarren eta Dominguez eta seniorretan, Zugasti eta Zuazubiskar.

## Gipuzkoako txapelketa

Arrasateko gimnasia erritmiko taldeko infantilak Bergaran izan ziren joan den asteburuan, Gipuzkoako txapelketako beste aldi bat jokatzen. Dagoeneko Edurne Gartzia eta Maria Etxebarriak sailkatzea lortu dute, maiatzean Arrasaten jokatuko den finalerako.

Larunbatean Eibarren izango dira gazte mailako Maite Alvez eta Ester Fernandez.

Aparailuetan biak zintarekin arituko dira.



Saioa Arriola promesa berria.



Oskar Santor, Golo.

Bigarren mailan partida osoa jokatuko duen Oskar Santor Golok igandean. Eibarko hirugarren mailako taldeko jokalaririk mondragoetarrak norgehiagoka bikaina egin zuten Ourenseren aurka. Gola sartzeko aukera ere izan zuen. Azkenean, ordea, Eibarrek 4 eta 2 galdu zuten, baina Golok maila ona erakutsi zuen.



Juan Arregi

“Nire ametsa gauzatzen bada, ehun urtea arte Alaves taldea gidatzea gustatuko litzaidake”. Ehun urtea arte ez, baina 91 urtea arte bai. Joan den asteartean hil zen Juan Arregi atxabaldarra, Alaves taldeko lehendakari ohia. Aretxabaletako Markole base-rrian jaio zen futbol zale hau, mende erdiz egon zen Alaves taldeari lotua.



## OLAIA ELORTZA (“EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ”)

# “Udaletxean euskaraz”

Orain dela urtebete hasi zen lanean Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldea. Egun hamar bat lagun ari dira eta beste gauza batzuen artean, bilkura egin berri dute kalean, hauteskondeei begira zinegotzi euskaldunak eskatzeko. Epai-barrutiko euskararen erabileraren inguruan ere lanean hasiko dira, beste euskara taldeekin elkar-lanean.

— Kale bilkura egingo duzue zinegotzi euskaldunak eskatzeko. Euskaldunak ala elebidunak?

— Euskalduna izatea eskatzen dugu, elebiduna baldin bada, aurrera. Gainera, gaur egun Arrasaten euskalduna dena elebiduna da. Bereizketari hori egitea ez dut logikoa ikusten. Euskaldun elebarkar gutxi gelditzen da gaur egun.

— Udaletxean nahikoa euskara erabiltzen da?

— Udaletxean atzeraka egin da. Lehen batzorde batzuk euskara hutsean egiten ziren. Orain denak gaztelaniaz dira. Alkateak *Alkatearekin berbetan* saioan “errespetuagatik” egiten dela azaldu zuen. Baina udalak euskararen aldeko hitzarmena izenpetu zuen, izenpetzaile guztien arteko harremanak euskaraz izan daitezten eta iaz, esaterako, gaztelania hutsean zegoen bando bat ere argitaratu zuen. Langileei hizkuntza eskakizunak eskatzen dieten bitartean, eurek ez dute inongo ahaleginik egiten.

— Mitxelenak zioenez, gaztelania ere euskaldunon hizkuntza da.

— Gaztelania gure hizkuntza da, denbo-

rak horrela inposatu duelako, baina gure hizkuntza euskara da.

— Hala ere, hirugarren hizkuntza bat bultzatzen da eskola guztietan.

— Ona da geroz eta hizkuntza gehiago jakitea, baina printzipalena da euskaraz adierazten jakitea. Zinegotzien kasuan, jendearekin hartu emana

izan behar dutenez, derrigorrez ezagutu beharko lukete euskara. Egia da badagoela interesik gaztelaniaren ezarpenari eusteko eta, hori dela eta, euskara aldarrikatzeko egiten diren ekimen guztiak gaizki hartzen dituztela. Alderdi politiko espainiarrak zabaltzen ari dira Euskal Herrian euskaldunak bakarrik nahi ditugula, baina hori politika hutsa da. Lortu behar duguna da Euskal Herrian euskaraz egitea. Horrez gain, gaztelania ikasten dela, edo ingelesa...? oso ondo! Baina udaletxean euskaraz ez jakitea oztopoa da eta ez litza-teke horrela izan behar.

— Zertan gelditu da Epaitegietan Euskaraz kanpaina?

— Hainbat herritan eutsi nahi diogu gai horri. Arrasaten, esaterako, beste euskara taldeekin landu nahi dugu. Txosten bat prestatzen ari gara egoera

“Inork ezingo du esan, ‘nik ez dakit, erakutsi ez didatelako’. Arrasate leku pribilejiatua da arlo horretan”



# ez jakitea oztopoa da”

azalduz: epaibarrutian zenbat epaile euskaldun dauden... Plataforma bat sortu nahi dugu helburu batzuk finkatzeko eta horren arabera lanean hasteko.

— Aldarrikapen hori egin zenutenean gogorregiak izan zitirela ere esan zen.

— Gogorra da eurek guri egiten digutena. Hor izugarritzko lana egin behar da eta gogor ez baduzu egiten, zelan egingo duzu? Hasieran egin ziren ekintzak egoerak eskatzen zituen tamainakoak izan ziren.

— Nola egiten du lan Arrasateko EHE taldeak?

— Orain urtebete sortu zen. Herrietara zabaltzeko beharra ikusi zen eta deialdia egin ziguten. Hasieran lan handia izan zen jendea aurkitzea, baina talde polita lortu dugu. Hamar bat lagun ellkartzen gara astero.

— Hemendik aurrera zer egingo duzue?

— Justiziaren arloa landuko dugu batik bat. Sekulako hutsunea dago hor. Ez da erraza botere judizialaren aurka jotzea, baina aurre egin

behar zaio. Jendearekin ere lan handia dago egiteko. Gaztelan egiten ohitu da eta hori aldatu beharra dugu, nahiz eta kosta.

— Nola ikusten duzue euskararen egoera hogeit urte barru?

— Itxaropentsu. Gauregun lana egiten da. Kasu askotan poliki eta luzera begira, baina lana egiten da. Agian azkartu egin beharko genuke abiada, baina itxaropentsu ikusten dugu.

— Arrasaten haurrek par-

te hartzen duten hizketaldietan euskara gehiago egiten da.

— A eredurik ez egotean, normaltzat jo daiteke. Gazteek ere jakin badakite euskaraz, baina ez dute erabiltzen. Hala ere, lehen baino gehiago egiten da. Inork ezingo du esan, “nik ez dakit, erakutsi ez didatelako”. Arrasate leku pribilejiatua da arlo horretan.

— EITBko zuzendariak euskaraz jakin beharko luke?

— TVEko zuzendariak gaztelan jakin beharko luke? ■



**ZUZEN-ZUZENEAN  
FABRIKATIK  
ZURE ETXERA**



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 943 79 91 75



## Tailu ikastaroa astelehenean hasiko da

Arrasateko Tailugileen Elkarteak antolatutako tailu ikastaroa apirilaren 19an zen hastekoa. Dena den, jende gutxi eman du izena, eta antolatzailerik halabeharrez astebera atzeratu beharra izan dute.

Tailu ikastaroa tailugintzan hasi nahi dutenentzat zuzenduta dago, eta helburua ikaslea tailugintzaren nondik norako oinarrikoen jabe egitea da. Irakaslea Iñaki Zubillaga izango da, eta astelehenean ostegunera, ordu eta erdi eta bi ordu bitarteko saioak egingo dira, Arrasateko Tailugileen Elkartearen. Halere, ikastaroaren ordu eta egunak irakasle eta ikasleen arteko akordioaren bidez alda daitezke.



Bederatzigarren urtez antolatuko da tailu ikastaroa.

Tailu ikastaroan izena emateko 5.000 pta ordaindu beharko dira, eta lehengai eta tresna guztiak Tailugileen Elkarteak jarriko ditu eskura.

Izena eman nahi duenak ondorengo telefono hauetara dei dezake: 943 79 77 57 (Jose Mari) eta 943 79 67 64 (Imanol).

## Sanjuanetarako kartel lehiaketa

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak abian jarri du sanjuanetarako hormirudi lehiaketa Arrasaten bizi edo erroldatutako edozeinek har dezake parte.

Hormirudiek 50x70 zentrimetroko neurria eta formato bertikala izan beharko dute nahitanahiez, eta DIN A3 tamainako paperean inprimatuta edo disketean aurkeztu ahal izango dira. Hormirudiak egiteko teknika egileak berak hautatu ahal izango du, baina testuan aurtengo urteaz gain "Arrasateko San Juan jaiak" testua azaldu beharko da. Lanek 1999ko maiatzaren 21eko arratsaldeko ordu bata baino lehen egon beharko dute Arrasateko udaltxeko Kultura Sailean. Egileak ez du lanean bere nortasuna azalduko, eta atzealdean lelo bat izango dute hormirudiek. Ondoren kartazal itxi batean leloa eta egilearen datuak adieraziko dira.

Irabazleak 150.000 pta.koa saria izango du, eta aurkeztutako lan guztiekin lehiaketa bat egin ahal izango da.

## "Tribuaren hitz galduak" Arrasaten

Pako Aristi idazlearen eta Mikel Markez kantariaren "Tribuaren hitz galduak" ikuskizuna izango da ostira-lean ikusgai Monterron jauregian. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da poesia eta kantu emanaldia.

Baina hau ez da liburuarren nazioarteko eguna dela eta antolatu den ekitaldi bakarra. Apirilaren 19tik hasita zapatua arte liburu hondatuen azoka izango da Monterron liburutegiko erakusketa aretoan. Liburutegiak hondatu-


tako liburuak edo erabiltzen ez direnak dohain emango dizkie bazkideei. Horretarako liburutegiko bazkide txartela aurkeztu beharko da. Liburuak eskuratzeko asmotan bazabiltzate, azkar ibili!

Haurdun bazaude, LAURA da zure jantzidenda.

Udaberriko moda gaztea jazteko, neurria ez da arazo izango.

Neurririk zabalena ditugu.

# Laura



Erdiko Kale, 30 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 05 80



MIKEL LIZARZABURU, GURE LEKU-KO LEHIAKETAN 2. SARIA

## “Lehiaketa batera aurkezten naizen lehenengo aldia da”

Mikel Lizarzaburu 29 urteko arrasatearra izan da Gure-Leku tabernak antolatutako arte plastikoen lehiaketan bigarren saria lortu duena. Lehiaketa batera gisa honetako lan bat aurkezten duen lehenengo aldia du, baina ez da gauzen bolumenarekin jolas egiten duen lehen aldia.

### — Zein lan aurkeztu zenuen?

— Gure Leku tabernari ongi zegokion materiala aukeratu nuen. Beraz, burdina tabernari ongi zegokionez, horixe hautatu nuen. Hormaren kolorearekin zenbait gunetan oxidoaren tonoz batzuk sartu nizkion zenbait azidoren bidez.

### — Noiztik gustatzen zaizu horrelako eskulanak egitea?

— Betidanik erraztasuna izan dut eskulanak egiteko, baina burdina erabiltzen dudana lehenengo aldia da. Egurrarekin egin izan ditut etxerako gauzak, baina lehiaketa baterako zerbait egiten dudana lehenengo aldia da.

### — Margolanik egiten duzu?

— Ez. Koloreekin nahiko txarra naiz. Nahiago dut bolumenarekin jolastu. Tailugintzari dagokionez ere, egin izan ditut zenbait lan, eta baita etxerako zenbait altzari ere. Baina ez dut beti material berdina erabiltzen, gauzak probatzea gustuko baitut: beirazko zuntzarekin, egurrarekin, burdinarekin, poliesterrarekin... aritzen naiz.

### — Zein prozedura segitu duzu zure lana egiteko?

— Xafla hartu, moztu, tolestu eta gero zenbait puntutan azidoa isuri dut, herdoiltzeko. Mozteko soplete gisako



bat erabili dut.

### — Zer adierazi nahi izan duzu lanaren bidez?

— Izenburua “Iraila” jarri diot, eta Arrasate herri industrialala izatea izan da material gisa burdina erabiltzearen arrazoietakoa bat. Artelanean arku bat dago, eta atzean lantegiak. Hauen aurretik jendea pasatzen da, eta horrekin zera adierazi nahi izan dut: langile batek nola ikusten duen Arrasate abuztua bukatzen denean. Portaloiko arkuaren aurretik pasatzen den langileari lana baizik ez datorkio burura. Hori dela eta, itsusi ikusten du Arrasate. Hori izan da adierazi nahi izan dudana.

### — Zenbat denbora eskaini diozu artelanari?

— Bi ordu eta erdi gutxi gorabehera. Xafla eskuratu ostean, ordu bete egin nuen moztzen, eta gainontzekoa burdina tolestu eta azidoa isurtzen

“Zera adierazi nahi izan dut: langile batek nola ikusten duen Arrasate abuztua bukatzen denean”

## aste gazte

### ■ UDALEKUAK

Diputazioaren programaren barruan, 7-13 urte arteko neska-mutilentzat, 7 edo 14 eguneko egonaldiak uztaile eta abuztuan. Aurten berrikuntza bezela, 9-13 urteko haurrentzat, euskara edo ingelesa ikasi edo zenbait kirolen (piragua, bela eta eskalada) sustapen programa. Aurreinskripzio epea: apirilaren 12tik 26ra.

— 14-17 urte arteko neska-mutilen programa geroago kalderatuko da. Izena emateko epea: maiatzaren 10etik 20ra.

### ■ DIRU LAGUNTZAK

1999-2000 ikasturtean espezializazioarako ikasketak atzerrian egiteko beka deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interesgarriak diren gaietan. Epea: maiatzak 10.

### ■ LANA

Eskoriatzan, udaleku irekietarako begiraleak behar dituzte. Baldintzak, 16 urte beteak izatea eta euskara idatziz nahiz ahoz menperatzea.

Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak hainbat postu bete nahi du: terapeutak, dietetikako teknikariak... Epea: maiatzak 7.

Irunerako, euskara burua eta giza baliabide eta zerbitzu orokorretako burua. Epea: maiatzak 3.


Nafarroako Foru Erkidego-turismo jardueretarako ofiziala behar da. Epea: maiatzak 12.

### ■ LEHIAKETAK

Arrasateko San Juan Jaiak 99ko hormirudi lehiaketa. Arrasatearrei zuzenduta, teknika librean eta 50x70 cm.ko neurrian aurkeztu beharko dira lanak. Epea: maiatzak 21.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65





Medikuntzaz arituko dira Rosa Mondragonen saioan.



Musiklasik saioan Vincenzo Belliniren lana entzungo dugu.

## Medikuntza eztabaidagai Mahai inguruan

Rosa Mondragonek zuzentzen duen Mahai inguru saioan medikuntza izango da hizketagai aste honetan. Horretarako, Osakidetzako mediku bat, beste bat naturista, eta bi medikuntza motak —tradizionala eta alternatiboa— probatu dituen pertsona bat izango dira mahaiaren inguruan exerita, ATBko platoan. Mahai inguruan

medikuntza mota bakoitzaren alde onak eta ez hain onak aipatuko dituzte. Ondoren, bakoitzak erabaki dezala zein duen gustukoena. Ikusi nahi izanez gero, piztu ATB asteazkenean gaueko 21:00ean.

### NORMA OPERA MUSIKLASIKEN

Asteartero legez, Iñaxio Olai-

zolak eta Marta Izagirrek musika klasikoa eskainiko digute. Aste honetan Vincenzo Bellini italiar konpositorearen *Norma* operaren zatitxo bat ikusteko eta gozatzeko aukera izango dugu, Joan Sutherland, Margreta Elkins, Ronald Stevens eta Clifford Granten abeslarien ahotsetan.

Honetaz guztiaz gain,

Donostiako Orfeoaren omenaldiko kontzertuaren zatitxo bat ere ikusi ahal izango dugu.

Goikobalu abesbatzak Arrasate Irratiaren V urteurrena dela eta, eskainitako kontzertua ere egongo da ikusgai. Gozatzeko saioa musikazaleentzat. Asteartean, gaueko 21:30etik aurrera.

### ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 24	ASTELEHENA, 26	ASTEARTEA, 27	ASTEAZKENA, 28	OSTEGUNA, 29	OSTIRALA, 30
<p>13:30 Asteko programen errepika: Jolasplast, Munduari bueltaka, Aurrez-aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebate.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Astebate (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepasoa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika).</p> <p>19:20 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haur jolasen saioa.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30: Musiklasik. Iñaxio Olaizola eta Marta Izagirrek aurkeztutako musika saioa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Musiklasik (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Mahai ingurua. Rosa Mondragonek aurkeztuta.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Mahaingurua (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Ekilan. A. Gorritibereakin enpresen inguruko saioa.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek aurkeztua.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Ekilan (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Astebate. Asteazkenean zehar gertatu diren berri garrantzitsuenen errepasoa, Maider Osak aurkeztuta.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek azken orduko bideo klipak aurkeztuko ditu.</p>
<p><b>IGANDEA, 25</b></p> <p>13:30 Asteko programen errepika: Jolasplast, Munduari bueltaka, Aurrez-aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebate.</p>			 <p>Rosa Mondragon.</p>	 <p>Alberto Gorritiberea.</p>	



Aurreikuspen  
planak


"Esaidazu nolakoa  
zaren eta zure  
Aurreikuspen Plana  
zein den esango  
dizut"

Aurreikuspen Plan  
MODERATUA

Aurreikuspen Plan  
MISTOA

Aurreikuspen Plan  
ALDAKORRA

Euskadiko Kutxan zure  
bizitza-estiloari ondoen  
egokitzen zaion  
Aurreikuspen Planari  
buruz aholkatzen zaitugu.

  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun  
zuzena

## **EUSKADIKO KUTXAK**

aurreikuspen  
planen  
eskaintza  
handitu egin  
du.

### ▪ **Euskadiko pentsioak**

Gorabeherarik  
gabeko  
errentagarritasuna  
lortu nahi duten  
pertonentzat.

### ▪ **Euskadiko pentsio mistoa**

Gehienez ere  
inbertsioaren %30  
errenta  
aldakorrean izatea  
aurreikusita dago.

### ▪ **Euskadiko pentsio aldakorra**

Inbertsioak  
gehienez ere  
%40 errenta fijoar  
eta %60 errenta  
aldakorrean egiter  
dira.

Posible da dirua  
batetik bestera  
aldatzea.

Zoaz gaur  
bertan zure  
sukurtsalera  
zure premiei  
hobeto  
egokitzen zaien  
planari buruzko  
informazioa  
jasotzera.



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Elorregi auzoan, Bergaran. Tel.: 943 76 07 47.

• Etxebizitza salgai. Erdialdean dago, Monterron ondoan. Osorik berrizteko. Oso merke. Tel.: 94 445 96 19.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosi nuke Arrasaten. Tel.: 649 20 35 12.

### 3. Errentan emateko

• Apartamentua alokagai Torreveijan. Erabat horniturik dago, eremu residentzial batean, igerileku eta guzti. Abuztuan eguneko 8.000 pta. Hamabost egunerako edo hil osorako. Tel.: 943 79 53 18.

• Arrasateko erdi aldean etxebizitza txiki bat alokatzen da. Tel.: 943 72 46 17 (deitu 18:00etatik 22:00etara).

• Gela bat daukat alokatzeko erdialdean. Tel.: 943 79 68 00

### 4. Errentan hartzeko

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

• Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61

### 5. Etxeak osatzeko

• Logela baten bila nabil etxebizitza partekatu batean. Tel.: 943 42 98 19 (Noel).

• Pertsona euskalduna behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Tel.: 943 85 04 86.

• Etxebizitza osatzeko laguna behar da, Jauregiabarri kalean (Erguin). Tel.: 943 79 27 64 (gauetz).

• Gela bat alokatuko nuke erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Garajea salgai. Bi autorentzako lekua du. 40m<sup>2</sup>. Aldai kalean. Tel.: 945 46 14 78.

• Garaje itxia salgai Larrea aldean. 2 m<sup>2</sup>, eta bi autorentzako lekua dauka. Tel.: 943 79 69 41. (Mari).

### 9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzeko, Uribarri Etorbidean. Tel.: 943 79 35 24.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m<sup>2</sup>ko bi solairu dituen tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

• 60 m<sup>2</sup> zabal eta 4 metro garai den lokala salgai edo alokagai. Erdialdean, argitsua. Gaur egun ile apaindegi eta edertze areto bezala erabiltzen da. Bitartea 17, eskuina. Tel.: 943 77 12 70.

### 14. Errentan emateko

• Lanean dabilen taberna alokatzen da Uribarri etorbidean. Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81.

• Toki bat alokatzen da Anboto kalean. 75 m<sup>2</sup> ditu. Tel.: 943 79 98 07 (gaueko 21:00etatik aurrera).

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Ingeles eta frantsesezko itzulpenak egiten ditugu. Merke eta azkar. Tokiko profesionalak. Tel.: 943 77 18 23.

• Andra euskalduna behar da pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska arduratsuak umeak zainduko lituzke. Deitu goizetan edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera 943 71 53 74 telefonora.

• Andra euskalduna prest etxeko lanak egin, umeak zaindu edo jende heldua zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun emakumea prest adineko pertsonak zaintzeko. Tel.: 943 77 04 60.

• Emakume bat prest pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Tel.: 943 77 04 60. Margari.

### 18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko, esperientziaduna (18:00etatik 21:00etara). Tel.: 9606 54 93 29. Jesus.

• Pertsona bat behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Esperientzia ez da beharrezkoa. Hilero bi aste-buru eta bi larunbat gauetz. Tel.: 943 78 22 10. Jasone.

• Emakume euskaldun arduratsua behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 05 77.

• Pertsona euskalduna behar da zerbitzari lanak betetzeko. Tel.: 945 44 50 86.

• Jatetxe batean mahaiak zerbitzeko neska behar da aste-buru eta jai egunetarako. Tel.: 71 64 70.

• Neska behar da fruta denda batean lan egiteko. Tel.: 943 77 01 79.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Margolaritza eskolak ematen ditut, marrazki artistiko eta olio estiloetan. Tel.: 943 79 19 23.

• Biologian lizentziadunak kimika eta matematikako eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 943 79 86 39. Amaia.

• Lehen eta bigarren heziketarako eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 83 46.

### 21. Eskaerak

• Alemanierako eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 24 18. Amaia.

• Marrazketako eskolak hartuko genituzke, COU eta FP2ko mailakoak. Tel.: 943 79 25 94.



**MOTORRA**

**23. Saldu**

- Ford Escort RS-Turbo, estrarekin, salgai. Matrikula: SS - AG. Tel.: 639 38 87 77
- Renault Super 5 zuria SS -AB salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 68 75.
- Opel Corsa GSI (VI - K) salgai. Tel.: 609 28 65 82 (20:00etatik aurrera).
- Ford Courier 1.800 diesel salgai. Matrikula: SS - AN. Deitu 943 79 82 09 telefonora.
- Trialeko motorra salgai. (Beta-250 c.c.). Oso egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 76 19 88 (gauetz).
- Aprillia SR 50 motorra salgai, ia berria eta bermearekin. Tel.: 649 67 28 54.
- Auto bat salgai Super 5 7-L 1.500. Matrikula SS-AD. Tel.: 943 79 65 43.
- Opel Corsa 16 autoa salgai. Matrikula: V-K. Tel.: 609 28 65 82. 20:00etatik aurrera.
- Yamaha YZ Motocross salgai. 94. urtekoa da, egoera onean dago eta 300.000 pta.tan saltzen dut. Tel.:

943 79 78 36. Unai.

- Peugeot 309, GTI(SS-Z) saltzen dut. Tel.: 943 79 74 65 edo 619 812 090, prezio onean.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

- Ehiza txakurrak salgai (setter ingelesak). Interesatuek deitu 943 71 48 90 telefonora 13:00etatik 15:00etara. Emilio.
- 270 litroko kutxa izoztailea salgai, berria, 25.000 pta.tan. Tel.: 943 79 55 28
- 27 liburukiz osatutako entziklopedia berriztatua. BBB, (FP) eta unibertsitateko ikaleentzat egokia. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.
- Musika katea salgai: Pletina, sintetizatzailea, disko jogailu, diskoak gordetzeko altzaria eta hiru bideko haffleak. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.
- Lursaila salgai, Marinen (Eskoriatza). 7.000 m<sup>2</sup>, txabolarekin. Tel.: 943 77 05 70. (Tin).
- Lehen Jaunartzerako soinekoa sal-

gai. Behin bakarrik erabilia. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 945 27 99 16. 20:00etatik. 22:00etara.

- Toldoa duen eta 2-4 pertsonarentzat den kanpin denda berria salgai. Tel.: 943 74 05 37. Mila.
- Auñamendiren Euskal Herriko Entziklopedia orokorra ilustratua salgai. Prezio onean eta egoera ezin hobean. Tel.: 943 79 12 95.

• Karabanako ispilu pare bat salgai. Ia berriak daude eta 5.000 pta balio dute. Tel.: 943 78 12 73. Jaione.

• Pentax Z-1 argazki kamera, 28-80 objetiboduna, eta FTZ-400 flasha saltzen ditut. Oso gutxitan erabilia. Tel.: 943 79 21 35

**27. Erosi**

- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. Tel.: 943 71 50 87.

**29. Eman**

Sofak oparitzen dira. 2 modulo, bien artean 2,35 m. okupatzen dute. Tel.: 943 77 16 45. Edozein ordutan, edo mezua utzi.

**31. Galdu**

• Larunbatea urrezko eraztun-zigilua galdu nuen, SC siglekin. Barrualdean Vicente eta 11-3-99 data dauzka. Tel.: 943 79 85 81. Sarituko da.

• Martxoaren 27an Canon markako argazki kamera galdu nuen Ostarkun. Tel.: 943 77 09 56 (Tania)

**32. Aurkitu**

• Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

**33. Bestelakoak**


• Bolinete errotako argazki bat lortu nahi nuke, kopia bat ateratzeko. Tel.: 943 72 55 92 / 609 55 08 40.

**HARREMANAK**

**37. Bestelakoak**

• Orrialde hauetako irakaskuntza sailleko eskaeretan agertzen den "gaztelaniako eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora.

*Kalitateak, mugarik ez.*



**ARGI-PLASTIC**

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE





**E**lizaren inguruan ibiltzen zen jendeak Arpa sate n elkarte bat sortu zuen 1904. urteko abenduaren 8an: Centro Catolico zelakoa. Haietxena da argazki hau.


Centro Catolico-aren Zilarrezko Ezteiak ospatzen ari ziren, bazkari honen bitartez. 1929. urteko maiatzaren 20an, hain zuzen ere.

Guztien aurrean, D. Paco apaiza agertzen da. Ondoren, eskumako aldetik hasita, honakoak daude: Carlos Zabaleta,

Florentino Gonzalez, Gabriel Goitia, Miguel Castañares, Jesus Leibar, ezezaguna, Valentín Letona, ezezaguna, Eugenio Baños, Jose Uriarte, Juan Pedro Azkoaga, Unamuno "Cochoero", Pablo Agirre "Belarru", Jose Antonio Goñi eta Donato Arregi. Zutik

dauden biak, berriz, Valeriano Martinez eta Justina Balanzategi dira.

-----  
**Argazkia:** Arantza Alonso.  
**Berriemalea:** A. Azkoaga.



- *Solarium honek Europako Batasunak eskatzen duen arautegia betetzen du.*
- *Puntako teknologia-  
ren bermea.*

## Miren Arrieta estetika zentrua

*Beltzaran egon nahi baduzu,  
eskaintza berezia duzu!  
Zatoz galdetzera!*

Zerkaosteta, 12 • ARRASATE • Tel: 943 79 00 35



# Ofiziale Elkarteen Gida

## Elektrizitatea

- **Aranzabal Koop. E.**  
Zerkaosteta, 15 ..... ☎ 943 79 68 21 / 670 57 53 83
- **Arrasate Elektrizitatea**  
Gipuzkoa etorbidea, 37 ..... ☎ 943 79 65 93
- **EYA**  
Iturriotz, 21 ..... ☎ 943 79 03 84

## Errotulazioa

- **Pando errotuloak**  
Gipuzkoa etorbidea, 6 (Legarre) ..... ☎ 943 79 79 70

## Igeltsaritza

- **Izcue Irurzun**  
Munar, 6 ..... ☎ 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Igeltsoak - Apaintzea

- **Pako eskaiolak S.L.**  
Markulete, 14 ..... ☎ 943 77 08 21

## Iturgintza

- **Txorrota**  
Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea ..... ☎ 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Margoak

- **Apain**  
Matiena, 3 - 1 ..... ☎ 943 79 61 56 / 689 04 91 17
- **Gallo margoak C.B.**  
Olaran, 24 ..... ☎ 943 79 70 49
- **JOVI**  
Ferrerias, 36 behea ..... ☎ 943 79 12 87
- **Serafin margoak**  
Ferrerias, 14 ..... ☎ 943 79 94 00 / 639 41 50 73

Gida honetan azaldu nahi baldin baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora.



Maalako  
errebala 13  
ARRASATE

UNITED COLORS  
OF BENETTON.

